

Ondorioak eta gomendioak

---

# Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)

---

**Ikerketaren zuzendaritza:**

Francisco Etxeberria  
Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku  
espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra

Carlos Martín Beristain  
Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian mediku espezialista

Laura Pego  
Zuzenbidean Doktorea. Kriminologian masterra. Kriminologiaren  
Euskal Institutuko ikertzailea

KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA  
*INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA*

**2017ko abendua**

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren  
**enkarguz egina**





## A) Proiektua: Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekimena

---

Ikerketa-proiektu hau 2014ean eskatu zion Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak UPV/EHU-ko Instituto Vasco de Criminología - Kriminologiaren Euskal Institutuari eta Eusko Jaurlaritzaren **2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana. Gizartea helburu** txostenaren 6.ekimenaren parte da.

Proposamenen esaten den bezala *“ITortura giza eskubideen urraketen artean gaitzesgarriena da. Fenomeno hori gerta daiteke, zeren atxilotuekiko tratuak gertatzen diren tokiak eta atxilotze-aldia kontrolpetik at gera baitaitezke. Opakutasunak zigorgabetasun-egoerak sortzen ditu eta zigorgabetasunak, aldi berean, horrelako praktikekarako egoera ezin hobeak. Tortura gertatzen den susmo zentzuduna izate hutsak zailantza hori argitzera bultzatu beharko luke giza eskubideekin eta demokraziaren balioekin konprometitu dagoen pertsona edo erakunde oro, baita fenomeno hori ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzerare. Tortura gertatzeko aukera dagoela detektatzeak eta horri erantzuteak ez ditu sistema demokratikoa eta polizia-kidegoak ahultzen; aitzitik, haien legitimitatea eta sistema demokratikoarekiko konpromisoa areagotzen du». Geroago, hau dio: «Administrazioaren betebeharrak etiko, politiko eta legezkoa da herritarrei segurtasunez bermatzea atxilotuei ematen zaien tratuan giza eskubideak errespetatzen direla eta, nolana ere, fenomeno hori ez gertatzeko eta, gertatuz gero, detektatu eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen direla”.*

Denbora luzez jasotako informazio ugari eta azken urteotan izaera ofiziala duten zenbait txosten hartu dira abiapuntu bezala, besteak beste:

- “Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak” (2008), Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendariarena.
- “2000tik 2008ra bitarte Euskadin inkomunikatutako atxilotuei eragindako torturei buruzko dokumentazioa: Ikuspegi zientifikotik heldzea” (2009), Jon Mirena Landa, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendariarena.
- “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)” Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan M<sup>a</sup> Uriartek egina (2013) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina.
- “Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu bidegabei buruzkoa” Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aboian jarritakoa eta bere emaitzak “Ahanzturatik ateratzen” (2017) liburuan kaleratuak.

## B) Helburuak: errolda prestatzea eta sinesgarritasuna baloratzea

---

Tortura eta tratu txarrak aztertzeaz arduratzen diren nazioarteko erakunde adituak Europako Kontseiluko CPT Torturaren Prebentziorako Batzordea, Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordea eta bere Errelatore Berezia, eta baita Amnesty International edo Human Right Watch bezalako Gobernu Kanpoko Erakundeak, besteak beste, beren txostenetan behin eta berriz adierazi dute, euren artean bat eginez, beren kezka Espainian torturaren gertakaria ezin delako gaindituzat hartu edo bere izatea ezin delako murriztu huts-hutsan kasuistikara, soilik bigarren mailakoa edo esporadikoa dena.

Ikerketa honen helburu nagusiak honakoak dira:

- Torturaren gertakariaren errealitate onjektibora hurbilduko gaituen azterketa zientifiko bat egitea gure testuinguruan aurrekariak bilduz eta 1960 eta 2014 urteen arteko errolda bat eginez.
- Azterketa honen ondorioak kontuan hartuz, beharrezkoak eta onargarriak izango diren errekonozimendurako, erreparaziorako eta prebentziorako neurriak proposatzea.

Horretarako, laburbilduta ondorengo gaiak jorratzen dituen aurkibide bat jarraituz garatu da ikerketa:

- Definizioak eta eremu kontzeptuala.
- Adituen froga medikua tratu txarrei eta torturari dagokionez: kokatze forentsea.
- Metodologia: garatutako ekintzak.
- Kasuen estatistika-azterketak: emaitzak.
- Kasu adierazgarrien azterketa koalitatiboa biktimen esperientzia humanoa, pairatutako ondorioak, jasotako erantzun sozialak eta instituzionalak eta biktimen bizitzetan izan duen eragina ezagutzeko.
- Ondorioak eta gomendioak.

Sinesgarritasunari dagokionez, eta NNBBen gomedioak jarraituz, tortura alegazioen 202 kasuen azterketa egituratua egin da Estanbuleko Protokoloaren bidez.

## C) Ikerketa taldearen antolaera eta metodologia

UPV/EHuko Instituto Vasco de Criminología - Kriminologiaren Euskal Institutuaren baitan talde disciplina anitzeko taldea eratu zen Zuzenbidea, Psikologia, Kriminologia, Auzitegi Medikuntza eta Informatika arloetan tituludunez osatutako 55 profesionalak osatuta. Horrekin batera, tale honek nazioarteko hiru behatzailerekin harreman zuzena izan du Elisabeth Lira Doktorea (psikologoa, Comisión Valech batzordeko kidea, Txile); Helena Solà Doktorea (jurista, Torturaren Aurkako Munduko Erakundea, Suitza); eta Nuno Viera Doktorea (auzitegi-medikua, Legezko Medikuntzaren Europako Kontseiluaren presidentea).

### Metodologia:

- Kontzeptu-esparrua definitzea, eta torturaren eta tratu txarren aurka estatuko eta nazioarteko erakundeek dituzten sistema juridikoek ematen dituzten bermeen azterketa.
- EAEko tortura eta tratu txarren fenomenoari buruzko berrikuspen bibliografikoa eta informazio-iturrien bilketa: 1960-2014 bitarteari buruzko txostenak, berriazko adierazpenak, erakundeen azterlan enpirikoak eta epai judizialak, batez ere.
- Biktimak identifikatzea, aurkitzea eta haiekin harremanetan jartzea. Aztertutako artxibo eta iturriak berrikusi ondoren, gure lehen iturria aurkitzeko eta harremanetan jartzeko lanei ekin aurretik, pertsonen alde aurreko errolda bat osatu genuen, hasierako informazioa berresteko eta osatzeko, kasuz kasu.
- Informazioa aztertea eta datu-basean sartzea.
- Datuak gurutzatzea eta SPSS programaren bidez analisi estatistikoa egitea.
- Elkarrizketa sakonak. Aztertutako aldian EAEn tortura edo tratu txarrak pairatu dituztela alegatu duten pertsonen 1.027 testigantza grabatu dira bidez.
- Ikerlan sakona egin da, Istanbulgo Protokoloa aplikatuz, 202 kasutan, ausazko laginketa baliatuta (ikus txosten honen 8. atala). Horrelako kasuen ebaluazioan eskarmentua duten profesionalak egin dute azterketa, bikoizte bidez baliozkotuta, eta ikuskapen-sistema independente batek onetsi du. Azterlan honen helburua da garai desberdinetako tortura eta tratu txarren salaketen lagin nahikoa izatea eta honako datu hauek jasotzea: biktimen testigantza, ondorioen deskribapena, eta alegazioen eta detektatutako sintoma eta seinaleen arteko adostasunaren ebaluazioa. Adostasunaren ebaluazio hori ikerketa-taldeak egin du, Istanbulgo Protokoloan jasotako eskala oinarri hartuta. Prozedura horren bidez sortutako informazioa pertsona bakoitzaren karpeta fisiko eta digitalean sartu da.
- 30 kasu adierazgarriren berriazko analisia egin da. Kasu horiek aukeratzeko, zenbait irizpide aintzat hartu dira: garaiak, pairatutako torturaren ezaugarriak, generoa, lege-esparrua, ikerketa judizialaren edo epaiaren maila, atxiloketa mota eta abar. Kasu horiek, gehienetan, Auzitegi Gorenaren froga judizialak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak edo Torturaren Aurkako Batzordearen ebazpenak dituzte. Sakon aztertu dira kasu horiek, baita biktimen esperientziak ere, azterlan honen xedearen funtsezko zati diren aldetik.

### Laburpena zenbakitan

- Azterlan honetan tortura eta/edo tratu txarrak salatu dituzten 4.113 pertsonen kasuak jaso dira: % 17 emakumeak dira eta % 83 gizonak, Euskal Autonomia Erkidegoan jaioak edo bertan bizi direnak.
- Pertsona horietako % 17k behin baino gehiagotan pairatu ditu; beraz, 3.415 pertsonak salatu dute, guztira, tortura pairatu izana.
- 454 txosten geratzen dira aztertzeko, 2017ko abuztuan itxitako ikerketan jasotako informazioak ikaragarriko tamaina daukalako.
- 26.113 dokumentu baino gehiago aztertu eta artxibatu dira (tratu txar eta tortura kasuen orain arteko artxiborik handiena).
- Tortura eta tratu txarren biktimen zuzeneko 500 testigantza egin dira, eta lehendik audioz eta bideoz jasota daudenak kontuan hartuta, 1.027 testigantzatik gora dira.
- Azterlan bat egin da, aditu-froga gisa, Istanbulgo Protokoloa oinarri hartuta, eta 202 pertsonari aplikatu zaie (% 80 gizonak eta % 20 emakumeak).
- Azterlan horren arabera, aztertutako kasuen % 5ean, gutxienez, arreta espezializatua behar duten ondorio psikologiko garrantzitsuak daude.

## D) Ondorioak eta gomendioak

Funtsezko bi zatitan banatuta dago puntu hau, eta gauzatutako proiektuaren muina sintetizatzen du. Lehenengo zatian ikerketaren ondorio orokorrak ageri dira. Bigarren zatian gomendio batzuk eman dira, eta tortura eta tratu txarrak prebenitzeko eta haien aurka egiteko kontuetan aginpidea duten zenbait erakundek gai horri buruz oraindik orain adierazitakoa ere jaso da.

### 1. Ondorioak

Azterlan honetan bildu da 4.113 kasuri buruz askotariko iturrietatik jasotako informazioaren analisia, baita tortura eta tratu txarren biktima izana salatu duten pertsonetako harremanak ere, haien historiak eta salaketak berresteko. Horrez gainera, landa-lan hau egin da: 500 testigantzatik gora grabatu dira bideoz; beste 202 kasu aztertu dira, ebaluazio mediko eta psikologikoen erabileran oinarrituta, Istanbulgo Protokoloaren arabera; eta 30 kasuren azterketa kualitatiboa egin da, dokumentazio ugari eta epai judizialak edo Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Torturaren Aurkako Batzordearen ebazpenak dituzten kasuak aztergai hartuta. Horrez gainera, lege-esparrua aztertu da, baita tortura eta tratu txarren prebentzioari eta ikerketari buruz nazioarteko erakundeek adierazitako printzipioak eta Espainiako estatuari emandako gomendioak ere. Halaber, 1960-2014 bitarteko garai ezberdinetako kasuen azterketaren testuinguruan auzitegi-medikuek duten eginkizunari buruzko ikerketa bat egin da.

#### 1.1. Tortura eta tratu txarrak

Azterlan hau giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen esparruan egin da. Orobat, giza eskubideen nazioarteko zuzenbide hori garatzeko egindako nazioarteko tratatuak kontuan hartu dira, estatuak tortura eta tratu txarren ikerketan, prebentzioan, justizian eta erreparazioan dituzten betebeharrak adierazten dituzten aldetik.

Tratu ankerren modu areagotua da tortura. Azterlan hau egitean, tortura eta tratu txarrak terminoak erabili ditugu; izan ere, sufrimendu larriaren intentsitatea ez da zehatz-mehatz haren helburuen araberakoa. Argitu diren kasu entzutetsuak deskribatzen dituen azterketa kualitatiboan egin dugun deskribapena lagungarria izan daiteke zenbait kontu ulertzeko: kaltearen sakontasuna, erabili ditugun teknika motak, baita kasu moten arteko aldeak ere, legearen, medikuntzaren eta psikologiaren ikuspegiak aintzat hartuta. Urraketa horiek baloratzeko, kasu bakoitzaren barneko eta kanpoko inguruabarrak kontuan hartu behar dira: adina, sexua, osasun-egoera, sufrimenduaren intentsitatea eta iraupena. Nolanahi ere, bizirik ateratzen diren biktimen osotasun fisiko eta psikologikoari erasotzen dioten urraketa horien garrantzia adierazten dute ezaugarri hauek: alde batetik, ekintzen nahitasuna, eta bestetik, torturaren eta tratu anker edo apalesgarrien debekua estatuan

---

eta nazioartean. Halaber, azterlanak biltzen ditu biktimei hainbat mailatako ondorio eta aztarnak eragin dizkieten kasuak. Horrek guztiak ekintzen garrantzia eta epe ertain eta luzean izan duten inpaktua adierazten du; izan ere, elkarrizketatutako biktima gehienek eragin hori gaur egun ere bizi dutela adierazi dute.

Etorkizunean kasu bakoitzaren ebaluazioa eginez gero, biktimek banan-banan behar duten tratamendua, aztarnak eta inpaktuak zehaztu ahal izango dira. Dena dela, jasotako 4.113 salaketen azterketa estatistikoan adierazitako datuek eta proiektuan egin diren berariazko hiru ikerlanen azterketa sakonak (Istanbulgo Protokoloko 202 kasu, bideoz grabatutako 500 testigantza, eta azterketa kualitatiboko 30 kasu) agerian jarri dute torturak eta tratu txarrek eragin duten inpaktu sakona, baita haien ondorio larriak ere.

Nazio Batuen Torturaren aurkako Konbentzioan, torturaren definizio hau jasota dago:

*1. artikulua. 1. Konbentzio honen ondoretarako, "tortura" terminotzat ulertuko da pertsona bati begira gauzatzen den egintza oro, hala nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak eragiten dizkiona, horren helburua dela berarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitortpenen bat lortzea, gauzatu duen edo ustez gauzatu duen egintza batengandik zigortzea, edo pertsona hori edota beste batzuk ikaratzea edo derrigortzea, edota edozein bereizkeria-motatan oinarritutako arrazoi batengatik, betiere, min edo sufrimendu horiek eragiten baditu funtzionario publiko batek nahiz funtzio publikoak gauzatzen dituen pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten dutenek. Ez dira tortura gisa hartuko zehapen legitimoen ondoriozko min edo sufrimenduak, edo zehapen horiei datxekizkienak nahiz zehapen horiei begira intzidentalak direnak.. (...) **Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa.***

Tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriak:

#### **16. artikulua**

*1. Estatu alderdi orok konpromisoa hartzen du, bere jurisdikziopeko edozein lurraldetan debekatzeko tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriak eratorzen dituzten bestelako egintza batzuk, nahiz eta halakoak tortura ez izan, 1. artikuluan definitutakoaren arabera, baldin eta egintza horiek gauzatzen baditu funtzionario publiko batek edo eginkizun ofizialak betetzen dituen beste pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten duenak. Bereziki aplikatuko dira 10, 11, 12 eta 13. artikuluetan aipatutako betebeharrak, torturari egindako erreferentziak ordeztuko direla bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriei egindakoekin.*

Torturari eta tratu txarrei buruzko erreferentzia hori eta giltzarrizko beste batzuk ageri dira taula honetan, ikuspegi juridikoa eta giza eskubideak kontuan hartuta, eta horiek guztiek ikerlan honen azterketa-esparrua osatu dute.

| Urtea | Jurisdikzioa |  |
|-------|--------------|--|
| 1948  | Unibertsala  | <b>Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.</b> 5. artikulua. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.   |
|       | Europarra    | <b>Giza Eskubideen Europako Hitzarmena.</b> 3. artikulua. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu anker edo apalesgarrikerik eman ere.   |
| 1966  | Unibertsala  | <b>Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna.</b> 7. artikulua. Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere. (...).  |
|       | Europarra    | Batzordearen eta GEEAren ebazpenetan oinarritutako definizioa.   |
| 1978  | Unibertsala  | Giza Eskubideen Batzordearen ebazpenetan oinarritutako definizioa. Giza Eskubideen Europako Batzordea eta GEEA ere kontuan hartzen dira.   |
|       | Europarra    | Giza Eskubideen Europako Batzordearen eta GEEAren ebazpenetan oinarritutako definizioa.  |
|       | Estatukoa    | <b>31/78 Legea, uztailaren 17koa,</b> 1973ko Zigor Kodeko tortura-delitua erreformatzekoa. 204 bis artikulua. Agintari edo funtzionario publiko batek, ikerketa polizial edo judicial batean aitopen edo testigantza bat lortzeko, Kode honetako 8. tituluko 1. eta 4. kapituluetan eta 12. tituluko 6. kapituluaren aurreikusitako delituren bat egingo balu (...).<br><b>Espainiako Konstituzioa.</b> 15. artikulua. Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarrikerik ere. (...).   |
| 1984  | Unibertsala  | <b>Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa.</b> 1. eta 16. artikulua (ikus supra)   |
|       | Europarra    | Nazio Batuen definizioa, 1984ko Konbentzioa, eta Giza Eskubideen Europako Batzordearen eta GEEAren ebazpenak.  |
|       | Europarra    | Nazio Batuen definizioa, 1984ko Konbentzioa, eta Giza Eskubideen Europako Batzordearen eta GEEAren ebazpenak.  |
| 1984  | Estatukoa    | <b>10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodearena (hein batean sartzen du 1984ko Konbentzioko definizioa).</b><br>174. artikulua. 1. Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkietenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkietenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. (...).<br>175. artikulua. Agintari edo funtzionarioak, bere karguaz abusatuz eta aurreko artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo, pertsona baten osotasun moralaren aurka atentatu egin badu, orduan, horri bi urtetik lau arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio, atentatua larria bada, eta ez bada sei hilabetetik bi urte artekoa ezarriko zaio. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, egileari enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaitasun berezia ezarriko zaio, bi urtetik lau artekoa. |

## 1.2. Tratu txar eta tortura kasuak eta praktikak

Proiektu honetan sortutako informazioak eta azterlan honetan egindako analisiek, 1960tik 2014ra bitartean pairatutako tratu txarrak edo tortura direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bizi ziren herritarrek zein bertan tratu txarrak edo tortura pairatutako beste edonor kontuan hartuta, honako konklusio hauek ateratzea bideratzen dute:

- 1960tik gaur arte tortura eta tratu txarrei buruzko etengabeko kezka egon da, inkomunikazio-erregimeneko kasuetan, batez ere. Milaka herritarrek salatu dute publikoki eta/edo judizialki tratu txarrak eta/edo torturak pairatu dituztela poliziako funtzionario publikoen eskutik, garai historiko ezberdinetan zehar eta tratu txar horiek askotariko larritasun-mailatakoak dira.
- Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) adierazi bezala, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak jasotakoaren arabera, eta Amnesty Internationalek adierazitakoaren ildotik, atxilotuen inkomunikazioak oinarriko eskubideak mugatzea dakar eta benetako babesa ez da bermatzen, horrek tratu txarrak eta tortura sustatu ditu, eta gertaera horiek ikertzeko aukerak nabarmen mugatu.
- Azterlan honen zati diren azterketa kualitatibo zein legalean jasota daude probintzia-azitegiek eta Auzitegi Gorenak emandako epaiak, 1979-1992 bitartean gertatutako kasuetan kondena irmoak ezarri dituztenak. Kasu horietan frogatu zen Poliziak zein Guardia Zibilak tortura ikaragarriak eragin zizkietela atxilotuei, atxiloteta-zentroetan bertan. Guztira, 20 epai irmo eman ditu Auzitegi Gorenak: 9 kondena-epai ezarri dizkio Polizia Nazionalari eta 11 Guardia Zibilari. Guztira, 49 funtzionario (emakume bat eta 48 gizon) kondenatu ditu, inkomunikazio-erregimenean zeuden 31 pertsonaren aurka (4 emakume eta 27 gizon) egin zutenagatik. Auzitegi horiek ez diote kondenarik ezarri Ertzaintzari.

| Egitateak | Biktimak   | Probintzia Auzitegia                  | Auzitegi Gorena                         | Polizia-kidegoa | Kondena-tuen kopurua |
|-----------|--|---------------------------------------|---|-----------------|----------------------|
| 1979      | Xabier Onaindia  | Bilbo<br>83 / 03 / 29                 | 85 / 06 / 19                            | PN              | 2                    |
| 1980      | Josu Torre   | Bilbo<br>87 / 07 / 20                 | 90 / 04 / 23                            | GZ              | 3                    |
| 1980      | Juan José Cazalis  | Donostia<br>84 / 05 / 26              | 87 / 03 / 27                            | GZ              | 1                    |
| 1980      | Juan José Larrinaga<br>Roberto Zabala<br>Ernesto Alberdi<br>Fernando Irakulis<br>Juan Luis Irakulis<br>Agustín Gisasola<br>Juan A. Urrutia | Bilbo<br>01 / 07 / 24                 | 03 / 11 / 19                            | GZ              | 2                    |
| 1981      | Joxe Arregi  | Madril<br>85 / 09 / 13                | 89 / 09 / 25                            | PN              | 2                    |
| 1981      | Tomás Linaza   | Bilbo<br>90 / 11 / 16<br>98 / 07 / 28 | 93 / 12 / 16<br>98 / 12 / 11            | GZ              | 2                    |
| 1981      | Mikel Ruiz   | Bilbo<br>95 / 04 / 18                 | 97 / 07 / 17                            | PN              | 2                    |
| 1982      | Juana Goikoetxea   | Donostia<br>87 / 07 / 15              | (Autoa<br>91 / 04 / 04)<br>92 / 01 / 30 | GZ              | 5                    |
| 1982      | Ana Ereño  | Bilbo<br>97 / 11 / 28                 | 99 / 01 / 25                            | PN              | 5                    |



|      |   |  |                              |    |   |
|------|---|--|------------------------------|----|---|
| 1982 | Juan Carlos Garmendia   | Donostia<br>93 / 09 / 28<br>94 / 11 / 02 | 94 / 06 / 20<br>95 / 11 / 20 | GZ | 3 |
| 1982 | Enrique Erregerena  | Madril<br>97 / 01 / 21                   | 98 / 07 / 03                 | PN | 4 |
| 1983 | Jokin Olano   | Donostia<br>92 / 09 / 22                 | 94 / 02 / 01                 | GZ | 5 |
| 1983 | Jose Mari Olarra<br>Lucio Olarra<br>Víctor Olarra<br>Ignacio Olaetxea | Donostia<br>86 / 11 / 21                 | 90 / 02 / 24                 | GZ | 1 |
| 1983 | Iker Eguskizaga   | Bilbo<br>95 / 04 / 05                    | 97 / 03 / 18                 | PN | 2 |
| 1983 | Javier Fernández  | Bilbo<br>97 / 02 / 18                    | 98 / 06 / 02                 | PN | 2 |
| 1984 | Kepa Otero<br>Jose Ramón Quintana                                     | Bilbo<br>97 / 02 / 17                    | 99 / 05 / 31                 | PN | 1 |
| 1984 | M <sup>a</sup> Dolores Barrenetxea<br>Jasone Sánchez                  | Bilbo<br>94 / 10 / 26                    | 96 / 12 / 19                 | GZ | 2 |
| 1984 | Ildfonso Salazar  | Donostia<br>88 / 03 / 28                 |                              | GZ | 1 |
| 1986 | Bixente Malaxetxeberria   | Gasteiz<br>88 / 12 / 15                  | 90 / 11 / 17                 | PN | 1 |
| 1992 | Kepa Urra   | Bilbo<br>97 / 11 / 07                    | 98 / 09 / 30                 | GZ | 3 |

*Auzitegi Gorenaren kondena-ebazpenak*

### 1.3. Nazioarteko erakundeen ebazpenak eta kondenak

- Azken hamarkadetan, nazioarteko hainbat erakunde (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Torturaren Aurkako Batzordea, Giza Eskubideen Batzordea) Espainia kondenatu dute tortura ikertzeko eta prebenitzeko betebeharrak ez betetzeagatik. Horrenbestez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak lau kasutan eman ditu Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonentzako ebazpenak (2002ko, 2003ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak), eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiru kasutan (2009ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin eta Polizia Nazionalak egindako atxiloketa batekin lotuak). Gertaera horiek guztiak inkomunikazio-erregimeneko atxiloketetan izan ziren, ETArekin kolaboratzaile edo kide izateaz akusatutako pertsonen aurka. Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak hiru kondena-irizpen eman ditu praktika horiek behar bezala ez ikertzeagatik eta ez zigortzeagatik (1992ko eta 2002ko gertaerak, bi kasutan Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak, eta kasu batean Ertzaintzak egindako atxiloketarekin lotua). Azkenik, Giza Eskubideen Batzordeak Espainia kondenatu du Guardia Zibilak egindako atxiloketa batekin lotutako kasuan. Kasu horietan, nazioarteko erakundeek Espainiako estatua kondenatu zuten salaketak ez ikertzeagatik, auzitegiko medikuen txosten eta frogen erabilera eskasa egiteagatik, egin behar ziren probak ez egiteagatik, edo torturaren ondorio psikologikoak ez ebaluatzeagatik.

- 
- Nazioarteko erakunde horiek adierazi zuten ezin izan zutela torturaren praktika ebaluatu, hain zuzen ere, ez zelako nazioarteko estandarren arabera ikerketa eraginkorrik egin. Arrazoi horiek daude, halaber, erakunde horietara aurkeztu ez diren hainbat kasutan, eta haien ikerketetan aipatu erakundeek adierazitako arazo berberak daude. Nazioarteko ebazpen horiek eta barnean Konstituzio Auzitegiak eman dituenak berresten dute ez dela ikerketa judizial egokia egin praktika horiek aztertzeko. Horrez gainera, Torturaren Aurkako Batzordeak eta Giza Eskubideen Batzordeak adierazi zuten gertaerak ikertzeko betebeharra zuela estatuak, baina orain arte estatuak ez du inolako erantzunik eman horren haritik.
  - Bestalde, tratu txar eta tortura moduen bilakaera egiaztatu du azterlanak, honako elementu hauei erreparatuta: salaketak jarri dituzten pertsonen kontaketa, berariazko kasuen azterketa eta Istanbulgo Protokoloan oinarritutako azterlana egiteko bildutako testigantzak, baita ikertzaile taldeak bildutako testigantzak ere. Aurkikuntza horiek, askotariko iturri eta ikerlan motatan ageri direnak, bat datoz: tratu txarren eta tortura-praktiken aldaketa adierazten dute. Aldaketa hori egiaztatu da; izan ere, tortura modu batzuk ez dira ageri jada biktimen lekukotzetan, esate baterako, bainuontzia, elektrizitatea ematea, eta hematoma handiak sortzen zituzten jipoiak, garai batean kontaktzen zituztenak eta hainbat txosten forentsetan berresten zirenak, 90eko hamarkada hasi arte. Salaketetan egiaztatzen den bilakaerak, Torturaren Aurkako Batzordera eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiara eramandako kasuak barnean hartuta, azaleko azterketa forentsetan nekezago detektatzen diren metodoen erabilera dakar, hala nola asfixia eragiten duten metodoak (poltsa), gorputz-jarrera behartuak edo ariketa oso nekagarriak, mehatxuak eta laidoak, biluztera behartzea eta sexu-irainak.

#### 1.4. Auzitegi-medikuaren eginkizuna ikerketan

- Gertaeren kontaketa auzitegi-medikuen aurrean egin zen askotan, baina hainbat txostenetan ez zen jaso biktimen kontaketa, edo atxilotuak adierazitakoa jaso besterik ez zuten egin, sakondu gabe, edo alegazioak ebidentzia batzuekin kontrastatu gabe, edo ez zuten ebaluatu lekukotza eta aurkikuntzak zenbateraino zetozen bat. Behin eta berriro egindako salaketen aurrean berariazko analisi klinikoak eskatu izanaren ebidentziarik ere ez dago, aztertutako kasuetako batean izan ezik: proba entzimakoak erabili ziren ariketa fisiko oso nekagarrien bidezko torturak muskuluetan duten inpaktua aztertzeko, eta kasu horretan Auzitegi Gorenaren epaiak eta txosten forentseak probaren baliozkotasuna aitortu zuten. Azterketa kualitatiboko hainbat kasutan ikusi da, gainera, atxilotuari eman zitzaion tratuak okerrera egin zuela auzitegi-medikuaren bisiten ostean. Horrek beldurra eta mesfidantza areagotzea ekarri zuen, eta, horrenbestez, auzitegi-medikuaren balizko eginkizunaren inpaktu txikiagoa.
- Auzitegi-medikuen lana garrantzi handikoa izan zen hainbat kasutan, tortura eta tratu txarrak frogatzeko, baita tortura edo tratu txarren egilea zehaztea ezinezkoa izan zen kasuetan ere, edota kondena penala ezartzera iritsi ez zirenetan. Auzitegi-medikuen eginkizuna funtsezkoa da, eta 80ko hamarkadako kasu entzutetsu batzuetan torturaren ikerketa eta prebentzioarekin konprometitutako auzitegi-mediku eta epaileek esku hartu zuten, ebidentziak hartzeko, baita polizia-instalazioetan bertan ere. Kasu batean aditu-froga bat egiteko eta ikerketaren espedientean sartzeko agindu zuen epaileak; izan ere, bainuontzia egin zioten tokiari buruz atxilotuak kontatu zuena bat zetorren eraikineko toki jakin batekin. Hainbat ebidentzia kendu bazituzten ere, barra bat jartzeko erabili zituzten tresnen arrastoak ikusten ziren. Atxilotuak azaldu zuenez, barra hartan plantxa bat jartzen zuten, haren bidez balantzaka ibiltzen zuten atxilotua, eta burua ur zikinetan sartzen zioten, asfixia eraginez torturatzeko. Beste kasu batzuetan, atxilotua ezkutatzeko moduak frogatu zituzten: auzitegi-medikuak atxilotua ez ikusteko, zulo bat ikustera edo beste diligenzia batzuk egitera eraman zutela esaten zioten. Ezkutatzeko hori frogatu zen kasu batzuetan prebentzioagatik ezarri zizkieten kondena, baina delitu hori generikoa da, eta ez du barnean hartzen tortura ezkutatzeko duen larritasuna.

### 1.5. Erantzukizuna eta diziplinazko ikerketarik eza

- Gogoan izan behar da askotan toki berean izan zirela gertaera horiek, eta batzuetan behin baino gehiagotan kondenatu zituztela zenbait agente. Eta gainerako agenteek ez zuten inoiz salatu praktika hori, ezta idazkariak edo atxilotuaren deklarazioaren arduradunak ere. Auzitegi Gorenaren epai batzuek deklarazioaren idazkaria eta instruktorea errudun jo dituzte, atxilotuari nolako tratua eman zitzaion jakin behar zutelako, zuzenean egileak ez izan arren. Beste batzuetan, epaiak berak aitortzen du talde antolatuak zeudela, batzuetan 15 agente ere biltzen zirela talde horietan, eta torturatu egiten zutela, baina ezin izan zituztela identifikatu. Auzitegi Gorenak epaitutako kasu batean, Guardia Zibilaren kuarteletik gertu bizi zen emakume batek jarri zuen salaketa. Oihuak entzun zituen gauean, agenteek musika oso ozen jartzen zuten bitartean, eta beste hainbat agentek ere entzun behar izan zituzten oiha haiek. Adibide horiek argi eta garbi adierazten dute diziplina-neurriak eta erakundeen arteko lankidetzat falta zirela, egileak identifikatzeko. Hortaz, ez zegoen tortura ikertzeko eta desagerrarazteko konpromisorik.
- Salatutako gertaeren ustezko egileei erreparatuta, alegatutako tortura eta tratu txarrak, polizia-kidegoaren arabera banatuak, pareko kopuruak dituzte Polizia Nazionalean eta Guardia Zibilean. Epai judizialek ere eragin bertsua dute bi kidego horietan.

### 1.6. Tortura eta tratu txarren metodoak

- Kaltetutako pertsonak alegatu dituzten tortura-metodoei erreparatuta, garaiaren arabera gertatutako aldaketaz gainera, desberdintasun adierazgarriak daude polizia-kidegoen artean. Salaketa orokorren azterketa estatistikoa eta Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanak emandako berriazko datuak bat datoz, bien artean koherentzia ageri da, eta horrek aurkikuntzen sendotasuna areagotzen du. Adibidez, deigarria da poltsa askotan erabiltzen zela, Guardia Zibilak atxilotutako pertsonen alegazioen arabera, eta Poliziaren kasuan nabarmen gutxiago erabiltzen zen. 90eko hamarkada hasi arte, aztertutako kasuetan torturak salatu zituzten pertsonen kopuru adierazgarri batek jakinarazi zuen elektrizitatea edo bainuontzia esaten zaion praktika erabili zutela bi polizia-kidegoek. Hala ere, gorputz-jarrera behartuak edo neke fisiko handia sortzeko moduak adierazten dituzte aztertutako hiru polizia-kidegoetako atxilotuek, maiztasun desberdinak izan arren. Desberdintasun horiek berretsi dituzte aldez aurretik egindako zenbait ikerlanek Bestalde, polizia-kidegoen aurkako salaketa eta lekukotzetan tratu txar psikologikoak (mehatxuak, irainak, abokaturik gabeko galdeketak maiz, laidoak...) adierazi dira, kasu bakoitzean adierazitako tortura fisikoekin batera. Bilakaera horri, eta garai bakoitzeko datuen konparagarritasunari erreparatuta, tortura eta tratu txarren alegazioen sendotasuna agerian geratzen da: salaketek ez dute eredu estereotipatu bat jarraitu, polizia-kidegoaren eta garaiaren arabera berezitasunak baitituzte.
- Aurreko guztia kontuan hartuta, ateratzen dugun ondorioa da jarduketa-eredu desberdinak daudela, eta ereduaren arteko diferentziak kualitatiboak eta kuantitatiboak direla, edo tratu txarren intentsitateari edo sakontasunari buruzkoak. Beraz, tortura eta tratu txarren salaketak ez dira pareagarriak hiru polizia-kidegoetan. Diferentzia horiek ez ditu polizia-kidegoak eta erakundeak erantzukizunetik salbuesten, ikerketa eta errekonozimendua behar-beharrezkoak baitira.

### 1.7. Torturatzen dela ukatzea eta indultuak ematea: Torturaren Aurkako Konbentzioaren urraketa

- Agintariek horrelako praktikak daudenik ukatu dute sistematikoki. Faktore horrek eta ikerketarik ez egiteak ere adierazten dute praktika horiek desagerrarazteko borondatea falta dela, eta agenteak balizko salaketa faltsuetatik babesteko asmorik ez dagoela. Balizko salaketa horiek ez jartzeko modurik egokiena da nazioarteko estandarren arabera ikerketa egitea. Baina, lehen adierazi bezala, ez da horrelakorik egiten, eta hori guztia egiaztatzen dute arestian aipatutako epai eta ebazpenek. Alabaina, agintariek susmoak zabaldu dituzte hainbat garaitan eta askotariko argudioak baliatuta tratu txarrak salatu zituzten pertsonen buruz. Diktadurako urteetan eta trantsizio politikoaren lehen urteetan, 1978ra arte, salaketei ez zitzaion jaramonik egin, salatzaileei gezurretan aritzea leporatu zitzaion publikoki, eta horrek izua eta berme falta eragin zituen. Gero, 80ko hamarkadan, batez ere, agintariek praktika horiek ukatu zituzten; izatekotan ere, kasu bakan batzuk izango zirela adierazi zuten. Nazio Batuetako errelatoreei eta kondena-epaiei eman zieten erantzuna izan zen gertaerak minimizatzea, salaketak estatuko segurtasun-kidegoen eta

---

agenteen aurkako ustezko etsaikeriari egoztea, sasiko zio politikoak tarteko. Horren ondoren, 90eko hamarkadan eta 2000. urtetik aurrera, Espainiako agintariek berariaz leporatu zien salatazaileei ETAREN aginduei jarraitzen zietela salaketak jartzean. Salaketa haiek ETAKO komando baten eskuetan aurkitutako balizko eskuliburu baten ondorio omen ziren. Hala eta guztiz ere, aztertutako ikerlanek eta esku artean dugun honen emaitzek adierazten dute salatzaile asko libre utzi zituztela, kargurik gabe, eta behin-behinean espetxeratu zituzten beste batzuk, berriz, errugabe deklaratu zituztela gero. Horren aurka, konparazio-azterlan batek azaldu zuenez, alde bate-tik, atxilotutako pertsonen % 60k salatu zuen tortura auzitegi-medikuaren edo epailearen aurrean, eta ez atxilotutako akusatu guztiek. Bestetik, tortura gehien salatutako pertsonak eta ondorengo estatus legala konparatuz gero, epailearen aurrean egon ondoren libre geratu ziren pertsonak salaketa gehiago jarri zituzten, oro har, azkenean ETAKO kide izateagatik kondenatu zituztenek baino. Halaber, ETAKO kide edo kolaboratzaile izateagatik, indarkeria zuzenean leporatu gabe kondenatu zituzten pertsonen artean % 9k soilik jarri zuen salaketa.


- Kasu batean, Torturaren Aurkako Batzordeak Espainia kondenatu zuen, tortura-kasuak direla-eta kondenatutako agenteak indultzeagatik eta biktimei benetako erreparazioa ez emateagatik. Horrek guztiak prebentzioa, zigorra eta biktimei erreparazioa emateko betebeharra urratzea dakar. Zehazki, Batzordearen ebazpenak Espainia kondenatu zuen torturaren larritasunaren araberrako zigorra ez ezartzeagatik eta diziplina-prozedurak falta direlako. Halaber, adierazi zuen horrelako kasuetan indultuak ematea ez dela bateragarria prebentzio-betebeharrarekin, eta erreparazioaren aurkakoak direla. Indultu horiek eman dira Auzitegi Gorenak kondenatutako kasuen % 60an, baita aldi berean ere, auzitegiaren eta biktimei iritzieren aurka. Estatuak ez zien inolako erantzunik eman nazioarteko betebeharrak horiei, ezta Batzordeak kasu horren inguruan egindako berariazko errekerimenduei ere.

## 1.8. Prebentzio-neurriak eta nazioarteko erakundeen eskaerak


- Tortura prebenitzeko neurri zuzentzaileak hartzea eskatu dute etengabe denbora horretan giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde publikoek, baita Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren giza eskubideen aldeko gobernuarteko erakunde edo mekanismoek ere, baina Administrazioak ez du esku-hartze nahikoa bultzatu, eta atxilotuen eskubideak ez dira eraginkortasunez bermatzen, puntu horri dagokionez. Arartekoaren bulegoaren ebazpenak eta monitorizazio-jarduerak garrantzi handikoak izan dira denbora horretan, prebentzioaren aurrera egiteko. Egiaztatutako gabeziak adierazi dituzte txostenetan, baita zuzentzeko hartu behar diren neurriak ere, eta Ertzaintzak aintzat hartzen ditu. Gomendio horien artean, azkenaldian eman direnak erabateko bidegrabaketa sistema bat, audioa ere grabatzen duena, ezartzearekin lotutako gorabehera teknikoei buruzkoak dira, edota grabazioak gordetzeko epeak luzatzekoak, Arartekoak 2011n emandako gomendioan eta geroagoko beste batzuetan eskatu bezala.
- Bestalde, 1997an, nazioarteko erakundeek, bereziki Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak, emandako gomendioak betetzeko, eta Espainiako auzitegi-medikuen jarduna nazioartean onetsitako teknika eta prozeduretara egokitze aldera, Justizia Ministerioak protokolo bat ezarri zuen, atxilotuei auzitegiko mediku-azterketa egiteko, informazio medikoa argiagoa eta zehatzagoa izan dadin, auzitegietan funtsezko froga-elementu gisa baliatzeko. Tamalez, hori guztia ez da bete, salbuespen batzuetan izan ezik, eta horrek eragotzi du atxilotuek alegatutako kasuak ikertzeko funtsezkoa den aditu-froga egitea. Torturaren Aurkako Batzordeak eta torturaren aurkako erelatoreak egindako txostenek, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiek eta Europako Kontseiluko Tortura Prebenitzeko Batzordeak 2001az geroztik adierazi dute protokolo horiek ez direla betetzen.
- Bestalde, 2003an, inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen laguntzeko protokolo bat ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak. Protokolo horrek Justizia Administrazioaren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren inplikazio zuzena dakar, eta hizpide dugun gaiari dagokionez, atxilotuak kudeatzeko kontrol-tresna egokia da. Protokolo horrekin batera, beste neurri batzuk ere hartu dira, hala nola inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen familientzako arreta-zerbitzua, eta atxilotuekin erabiltzeko bidegrabaketa sistema. Tamalez, hori guztia Ertzaintzako agenteek egindako atxilotetetan soilik betetzen da. Protokolo hori hedatu behar da beste segurtasun-indar batzuek atxilotutako pertsona guztietara; hartara, berme batzuk sortuko lirateke, gaur egun polizia-kidego horietan ematen ez direnak. 2003az geroztik, Auzitegi Nazionalako zenbait magistratuk beste neurri partzial eta gutxi erabili batzuk aplikatu dituzte. Dena dela, horrek ez du eragotzi tortura eta tratu txarren salaketen iraunkortasuna.

### 1.9. Azterlanak emandako datuak: biktimen eta kasuen kopuruak

- Egin dugun azterlanean polizia-kidegoetako funtzionario publikoek eragindako tratu txarrak eta/edo tortura pairatu dutela modu publikoan eta/edo judizialean salatu duten 4.113 pertsona bilzen dituen errola osatu dugu (% 17 emakumeak eta % 83 gizonak). Pertsona horietako % 17k behin baino gehiagotan pairatu dituzte; beraz, 3.415 pertsonak salatu dute, guztira, tortura pairatu izana. Zifra horiek kaltetuen kopuruaren benetako dimentsioa baino txikiagoak dira; izan ere, diktadura garaian eta trantsizioaren lehen urteetan, 1978ra arte, 1.081 soilik erregistratu ditugu (erregistratutako guztien % 26,4), baina garai hartan tortura oso ohikoa zen, eta dimentsio askoz ere handiagoa izan zuen. Bestalde, kontuan izan behar da badaudela beste pertsona batzuen erregistroak ere, baina ezinezkoa izan zen haiekin harremanetan jartzea, salaketa berresteko garaian ez zuten konfiantzarik izan, edo gertatutakoa ahazten eta atzean uzten ere ahaleginu ziren zenbait kasutan, eta beste kasu batzuetan, berriz, ez zegoen ezta erregistrorik ere. Salaketa horien bilakaera historikoak adierazten du behera egin dutela pixkanaka 2004tik aurrera, eta 2015ean eta 2016an ez dugu erregistratutako kasurik. Grafikoak kasu guztien multzoa adierazten du, bai jasotako salaketak, bai salatzaileek azterlan honetarako berariaz berrestitako salaketak, bai Istanbulgo Protokoloari buruzko kasuak.



Azterlan honetan kontuan hartutako kasuen banaketaren adierazpen grafikoak: salatutako kasuen kopurua, kaltetuek berrestitako kasuen kopurua, Istanbulgo Protokoloko kasuen kopurua



*Polizia-kidegoak eskuratutako dokumentazioari buruzko informazioa: maiztasunak. Salatutako kasu guztien kopuruaren adierazpena, berretsitako kasuak, baimen informatua duten kasuak, Istanbulgo Protokoloa eskatutako kasuak, eta burututakoak*

#### 1.10. Tratu txarren eta torturaren memoria: Datuen, kasuen eta biktimen artxiboa

- Sortutako informazioa hiru esparru interesgarriren arabera hartu da kontuan, egitateak egiaztatzeko konbentzimendu-elementu nahikoak bermatze aldera; hau da, lekuko-froga, agiri-froga eta aditu-froga. Guztira, 26.113 dokumentutik gora aztertu dira. Dokumentazio hori tratu txar eta tortura kasuei buruzko artxibo handiena da. Berez, giza eskubideen urraketak, etorkizuneko erakunde-mekanismoen lana eta Euskadiko memoria kolektiboa ikertzeko dokumentazio izugarri garrantzitsua da.
- Ildo horretan, tortura eta tratu txarren biktimen zuzeneko 500 testigantza jaso zituen proiektuak, eta azterlan honek lehendik jasotako testigantzen dokumentazioarekin batera, 1.027 grabazioetik gora bildu dira audioan eta bideoan azterlan honen bidez. Horrez gainera, azterketa bat egin zen, peritu-froga gisa, Nazio Batuen Istanbulgo Protokoloan (2000) oinarrituta, eta 202 pertsonari aplikatu zaie. Pertsona horien % 76 da 1978aren ondorengo garaikoa, zenbait aldi kontuan hartuta; % 20 diktadura garaikoa eta trantsizioaren lehen urteetakoak, eta % 4 bi garai horietan atxilotutako pertsonak dira.

#### 1.11. Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanaren ondorioak


- Elkarriketatutako pertsonen % 80 gizonak ziren, eta % 20 emakumeak. 30 urtetik beherako gazteen atxilotetak % 76,8 dira. Atxiloteta egindako segurtasun-kidegoa kontuan hartuta, kasuen % 38 Guardia Zibilaren atxilotetak izan ziren, % 30,7 Poliziarenak, % 9,9 Ertzaintzarenak eta % 21 beste polizia-kidegoenak. Tortura edo tratu txarrak salatutako pertsonen % 43 libre utzi zituzten: % 35,6 kargurik gabe, eta % 6,4 behin-behineko askatasunean. Inkomunikatuta egondako egunak 4,9 izan ziren, batez beste. Atxiloteten kopuru handiena 80ko hamarkadan izan zen (laginaren % 35), eta 2000. urtetik aurrera (laginaren % 31). Kasu horien banaketak salaketan lagin orokorrak (4.113 kasu) duen joeraren ildoari jarraitzen dio.
- Tortura eta tratu txarren ondorio psikologikoei erreparatuta, peritatutako pertsonen % 60tik gora erresilienteak dira, gertaera horiek pairatu arren. Oro har, ez dute betetzen osasun mentalaren arazoren bat diagnostikatzeko irizpiderik, eta ez dute psikopatologia adierazgarririk. Horrek ez du esan nahi tortura pairatu ez dutenik. Hala eta guztiz ere, % 21,8k kalte horien sintomak dituzte. Sintomak arinak izan daitezke, baita trauma osteko estresaren nahasmendu osoak ere. Dena dela, %

15,54 daude diagnostikatuta. OMEk egindako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-10) Katastrofe-esperientzia baten ondorengo nortasun-aldaketa iraunkorra ageri da. Gure laginean, peritatutako pertsonen % 6,5ek du sintomatologia hori.

- Datu horiek bat datoz lagin txikiagoekin egindako beste ikerlan batzuekin, inkomunikazio-erregimenean atxilotutako 45 pertsonari Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ebaluazioek emandako emaitzen arabera.
- Gure txostenari berriro helduta, Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanaren berariazko helburu bat zen ahalik eta modu objektiboenean ebaluatzea garai bakoitzean tortura eta tratu txarrak pairatu izana salatu zuten pertsonen kontaketa eta sintomatologiaren eta aurkikuntzen arteko loturaren maila, Istanbulgo Protokoloan bertan definitutako irizpideei jarraituz. Tortura edo tratu txarrak alegatutako kasuen analisiak, psikologo eta mediku bikote batek eginak, kanpoko ebaluazioarekin eta peritatzeak ikuskatuta, honako emaitza hauek izan zituen: trinkotasun maximoa kasuen % 5,9an, trinkotasun handiko lotura % 41,1ean, kontaktaren eta aurkikuntzen arteko adostasun trinkoa kasuen % 48,5ean, eta trinkotasunik gabea kasuen % 4,5ean. Azken ebaluazioan trinkotasunik gabe ageri diren kasuak berrikusi egin ziren: indarra erabilitako gertaeren kontaktak ziren, baina zalantzak zeuden tortura, tratu txar edo indarra gehiegi erabilitako kasutzat hartzeko.

### 1.12. Lekukotzetan, epaietan eta Nazio Batuen erakundeen kondenatan oinarritutako azterketa kualitatiboa

- 30 kasu entzutetsu aukeratu ziren ikerketarako, biktimek bizi izandako tortura eta tratu txarren gertaera desberdinak, giza eskubideen urraketan ondorioak eta ez ikertzearenak adierazten dituztenak. Kasu horiek sakon aztertu ziren, eta dokumentazio ugaria dute, kasu bakoitzean tortura erabili izana eta ikerketa eragingarririk ez zela egin egiaztatzen duena. Arazoa minimizatzen duten erantzunen aurrean, ikerlan honek ukatu ezin den historia azaltzen du. Zehatz-mehatz deskribatuta ageri dira 1979tik 1992ra bitarteko 20 kasutan ikerketa judizialak izan dituen emaitzak, deskribapen oparoa baliatuta: oinazea eragiteko muturreko moduak, segurtasun-indarretako hainbat agenteren parte-hartzea kasu horietan (Guardia Zibila eta Polizia), torturak egiteko erabilitako berariazko tokiak, praktika errepikakorrek zenbait kuartel eta polizia-etxetan, eta ekintzetan parte hartutakoen talde txiki bati ezarritako kondenak (hilabete gutxiko askatasuna kentzea eta desgaitasuna, gehienetan bete ez zirenak).
- Bestalde, justizia faltaren xehetasunak azaltzen ditu. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Torturaren Aurkako Batzordeak eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak emandako epaien azterketak zehatz-mehatz adierazten du, formalki ezarritako mekanismo judizial eta forentseak izan arren, mekanismo horiek ez dutela, oro har, eraginkortasunez funtzionatu, eta askotan zigorgabetasuna bideratu dutela. Espainiako estatuari ezarritako kondena horiek 1990ko hamarkadan eta 2000. urtetik aurrera agertu ziren; horrenbestez, justiziaren arazoak eta tortura eta tratu txarren salaketen garrantzia agerian geratu ziren, baina ezin izan zituzten epaitu, hain zuzen ere, ikerketarik ez zelako egin. Epai horiek eman izanak zalantzan jartzen du justiziaren funtzionamendua kasu horietan; izan ere, nazioarteko kondena horiek adierazi dute justizia faltak Torturaren Aurkako Konbentzioa urratzea eragin zuela, eta ez instrukzio-epaileek, ez probintzia-auzitegiek, ez goi-auzitegiek (Auzitegi Gorena, Konstituzio Auzitegia) ez dute inolako erreakziorik izan.



*Auzitegi Gorenaren kondena-epaiak torturagatik: 20 epai 1979tik 1992ra bitartean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren kondena-epaiak tortura ez ikertzeagatik: 7 epai 2002tik 2011ra bitartean*

- Orobat, azterketa kualitatiboak azaltzen du zenbait pertsonak ez zituztela gertaerak salatu, torturaren ondorioz zeharo minduta eta beldurtuta zeudelako. Pairatutako izugarrikeriaren xehetasunak entzun beharreko istorioen adibide dira. Pairatutako sufrimenduaren eta injustiziaren aurrean sentsibilitatez jokatzu soilik eraiki daiteke giza eskubideen kultura bat. Azterlan honetan parte hartu duten biktima batzuk, hain zuzen, biktima desberdinen arteko topaketak egiteko ekimenean ere parte hartu dute, hala nola Glencree ekimenean. Eredu horrek sentsibilitate gurutzatuaren premia agerian jartzen du; eta, aldi berean, inoiz gertatu behar ez zuten giza eskubideen urraketak pairatu zituzten pertsonen esperientzia errebindikatzen du. Kasu horietako gehientsuenak indarkeriazko testuinguruan gertatu ziren. Torturaren inpaktua agerian jartzea lehen urratsa da, gure gertuko iragana osatzen duen ispiuaren zati horri begiratzeko, eta modu ireki eta profesionalean heltzea, giza eskubideen estandarren arabera, lagungarria izango da gure gizartearen etorkizuna ez baldintzatzeko.

### 1.13. Tratu txar eta tortura kasuetan arreta, prebentzioa eta erreparazioa sustatzeko neurriak

- Azterlan honetan bildutako datu eta konklusioek adierazten dutenez, garrantzi handiko biktima talde batek errekonozimendu publikoa eta erakundearen errekonozimendua behar du eta errebindikatzen du, eta Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak abian jarritako ikerketan arreta eman diezaioten nahi du, oso urrats positiboa dela iritzita. Ikerketa egitean, kontsultatutako pertsona eta erakunde guztien ulermena eta lankidetzeta egiaztatu ditugu. Adierazi dute azterlan hau egokia dela, eta lortu nahi diren helburuak ere egokiak direla. Alegia, gertaerak aitortzea, erreparazio-neurriak ezarri ahal izateko, hori baita gainditzeko eta amaitzeko modu bakarra.



- Istanbulgo Protokoloan oinarritutako ikerlanaren arabera, aztertutako kasuen % 5 eta 15 artean ondorio psikologiko garrantzitsuak ageri dira. Horregatik, pertsona horientzako asistentzia-neurri espezifiko eta espezializatuak ezartzeko gomendia ematen dugu, betiere berriro biktimizatzea eragotziz.
- Azterlanak hainbat eta hainbat kasu dokumentatu azaldu ditu, hein handi batean biktimekin kontrastatuta egiaztatu ostean. Orobat, ia biktima guztiek ez dute arreta, errekonozimendua eta erreparazioa sustatzeko neurririk izan. Auzitegi Gorenaren epaiak dauden kasuetan, erreparazioa izan zen zenbateko ekonomiko bat, ageriko lesio fisikoak sendatzeko behar izan zituzten egunen arabera mugatua. Inpaktu psikologiaren inolako ebaluaziorik ez da kontuan hartu, ezta kasu horietan ere. Azterlanaren emaitzek adierazten dute arazoaren inpaktua ez dela aitortu, eta ez zaiola arretarik eman. Erakundeen erantzunaren ardatzak politizazio-jarduerak eta errekonozimendua arbuizatzea. Hala ere, Ertzaintzaren kasuan, une jakin batean berariazko prebentzio-protokoloak abian jarri zituzten, Nazio Batuen sistemako mekanismo eta erakundeen nazioarteko gomendioei jarraituz. Azterlan honetan ateratako ondorioek eta nazioarteko erakundeek kasuei dagozkien erantzuleen aitortenaren garrantzia nabarmentzen dute.

Funtsezko ondorioetako bat da azterlan honen bidez biktimen errekonozimendurako beste urrats batzuk emateko baldintzak sortzen direla. 107/2012 Dekretuaren bitartez 1960tik 1978ra bitarteko ordena-indarren biktimak aitortu ziren bezala, partzialki izan bazen ere, azterlan honen emaitzek azaltzen dituzte kasu horietan errekonozimendua, arreta eta erreparazioa bideratzeko abian jar daitezkeen baldintza eta metodologiak. Neurri horiek legez behar den aitortenarekin egituratu behar dira, nazioarteko estandarren arabera, eta gizarte-ehunaren berreraikuntza, memoria kolektiboa eta errekonozimendua sustatzeko ekarpen eraginkorrak izango dira.

- Atal honetan gogora ekarri behar dugu Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa; eta 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Horren guztiaren aurretik Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion biktima horien erreparazio-politiketan aurrera egin zezala.

Estatuaren Abokatutzak errekurtsio bat jarri zuen 107/2012 Dekretuaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, kasuen ebaluazioan zehar egindako aldaketek Memoria Historikoaren Legea eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko legedia urratzen zituztelakoan. Horrenbestez, zenbait aldaketa egin ziren egoera konpontzeko eta lana amaitzeko. Orain, Gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian errekurritu du 2016ko legea. Biktimenzako errekonozimenduen eta erreparazioaren bidean beste urrats bat emateko legea den aldetik, egoki izango litzateke lege horren garapena eta aplikazioa eragotziko lukeen edozein ekintza bertan bera uztea.

## 2. Gomendioak

### 2.1. Tortura eta tratu txarrak prebenitzeaz

1984tik hainbat gomendio egin ditu Amnesty Internationalek, eta gerora 90eko hamarkadaren erdialdetik baita Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) ere, eta torturarekin zerikusia duten gaietarako Nazio Batuen Erakundearen kontalari bereziak (egin izan dituzten bisita eta txostenetan behin eta berriro adieraziak, gainera), baina urte hauetan guztietan Espainiako agintariek ez diete zinezko erantzunik eman gomendio horiei, Zigor Kodean torturaren debekuari buruzkoak diren artikulua partzialki hedatzea salbu. Hain zuzen, tortura-salaketetan edota tratu txarren salaketetan ikerketaren osteko zigorgabetasuna arazo larria izan da, eta oraindik da, Espainiako estatuan, erakunde horiek adierazi izan duten bezala.

Amnesty Internationalek, hala, tortura prebenitzeko hamabi puntu adierazi izan ditu ordudanik, eta horietako askori oraindik ez zaie zinezko erantzun argirik eman, ikerlan honen emaitzetan argi ageri denez. Nagusiki puntu hauek izan dute erantzun mugatua, edo ez dira nazioarteko estandarrei jarraituz egin: biktimei errekonozimendu ofiziala ematea edo tortura esplizituki gaitzestea eta erreparatzea, inkomunikazioari mugak jartzea, tortura-salaketak izandakoan deklarazioak baliogabetzat hartzea, ustezko torturatzaileak auzipeetza eta atxiloaldian bermeak ziurtatzea. Hauek dira Amnesty Internationalek adierazitako hamabi puntuak:

- 
1. Tortura ofizialki gaitzestea.
  2. Atxiloaldi inkomunikatuko erregimenari mugak jartzea.
  3. Ezkutuko atxiloketak desagerraraztea.
  4. Atxiloaldian eta galdeketetan bermeak ziurtatzea.
  5. Torturari buruzko txostenak modu independentean ikertzea.
  6. Torturapean lortutako deklarazioak legez baliogabeak izatea.
  7. Tortura legez debekatuta egotea.
  8. Ustezko torturazailleak auzipetzea.
  9. Prestakuntzarako prozedura.
  10. Ordaina eta errehabilitazioa.
  11. Nazioartearen erreakzioa.
  12. Nazioarteko bitartekoak berrestea.

## 2.2. Tortura eta tratu txarren salaketak ikertzea

Tortura eta tratu txarren salaketak ikertzea halakorik berriro gerta ez dadin bermatzeko modu bat da, baina baita biktimei erreparazioa emateko neurri bat ere, Estatuaren betebeharra ez ezik. Halakoak ikertzeko oztopoek mugatu egiten dute tortura eta tratu txarrak agerian jartzeko aukera, bai eta erreparaziorako edo prebentziorako ezein politika ere.

Demokraziaren hastapenetik gaur arte, tortura eta tratu txarren salaketen aurrean zenbait bertsio agertu izan ditu Estatuak, unearen arabera: a) zinezko erantzunik eza edota baita kritika ere nazioarteko erakundeen kezka edo ikerketa independenteeikiko; b) auzia botere judizialaren esku uztea, barne-ikerketarik egin gabe; c) salaketak segurtasun-indarrei izen ona kentzeko estrategia politikotzat hartzea edo ETak kideei agindutako kontsignatzat jotzea, eta d) salaketa egin duten pertsonen gezurra esan izana egozte eta haien kontrako ikerketa judiziala hastea.

Tortura eta tratu txarrak ez dira ikertu modu independentean era hedatu eta behar beste bermez, beharrezkoa den baloratzeko. Azken hamarkadetan, ikerketa independenteak nazioarteko erakunde batzuek baizik ez dituzte egin, eta emaitza kritikoak agertu izan dituzte Estatuako segurtasun-indarrek egindako tortura eta tratu txarren kasuekiko edo maiztasunarekiko. Nazioarteko erakunde horiek dira, zehazki, CPT, Nazio Batuen Erakundeko Torturaren kontrako Batzordea, torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEren kontalaria, eta gobernu kanpoko erakundeak (esaterako, Amnesty International). Bestalde, aipatzekoak dira Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiaren aurka emandako epaiak (ikerlan honekin zerikusia duten kasuetan) tortura-salaketak ez ikertzeagatik, horrek biktimei eragin zien kalte morala ere kontuan hartuta.

Ikerketa judizialak, aldiz, oztopo ugari aurre egin behar izan die hamarkada luzez:

- Polizia-agenteeek lankideak babesteko edo identifikazioak ukatzeko joera izatea, galdeketetan parte hartu zutenen erregistroa osatzeko oztopoak, Estatuako segurtasun-indarrek ikerketetan ez laguntzea, polizia-agenteeek salaketarik egin ez izana, ezta tartean Auzitegi Gorenaren epaiak zeuden kasuetan ere, zeinetan epaileek adierazten baitzuten identifikatu ezin izan zituzten askoz agente gehiagok parte hartu zutela.
- Epailak eta fiskalak maiz aldatzea, horrek ere oztopatu egin baitu tortura eta tratu txarren salaketak zinez iker daitezen lortzea, gehiegi luzatzea frogak egitean eta abar.
- Barne-ikerketarik ez egitea nahikoa bermerekin, tortura-kasuak edo tratu txarrak eta tartean zeuden agente edo agintariak identifikatzeko moduan.

### 2.3. Torturaren eta tratu txarren biktimek<sup>1</sup> erreparazioa lortzeko eskubidea. Erreparaziorako berme horien egoera Espainiako estatuan eta torturaren eta tratu txarren testuinguruan

90eko hamarkadaren erdialdean Joineten printzipioak eman zituzten aurrenekoz; 2007an, Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen urraketa larriak pairatu dituzten biktimen eskubideei buruzko agiria eman zuen; eta bien bitartean, erreparaziorako eskubideak aurrera egin du, oro har, eta hainbat arlotan garatu da, hala nola arreta-programetan, nazioarteko auzitegien epai judizialean (Giza Eskubideen Europako Auzitegiarenak eta Batzorde Interamerikarrarenak, esaterako), eta akordio estrajudizialean, zenbait testuinguru eta herrialdetan. Erreparaziorako eskubidearen funtsezko bost definizioak alderdi hauei buruzkoak dira: a) lehengoratzea eta itzultzea; b) indemnizazioa kalte-galerengatik; c) errehabilitazio mediko edo psikosozial eta legalerako neurriak; d) erreparazio sinbolikoa eta errekonozimendurako neurriak, eta e) berriro ez gertatzeko bermeak.

#### a) Lehengoratzea

Neurri hau ez da baloratu tortura-kasuetan. Eskubideak lehengoratu beharra izan daiteke, edota biktimak galerak izan baditu edota aukerak galdu baditu, horiek itzultzea, betiere galerak torturak eta tratu txarrek eragin badituzte, edota torturaren eta tratu txarren eraginek, edota legez kontra edo modu arbitrarioan atxilotuta egoteak.

#### b) Indemnizazioa

Torturaren biktimezako laguntza-programarik ez da izan, ezta ordainik ere, salbu eta Eusko Jaurlaritzak 1960tik 1978ra bitartean polizia-agenteen biktima izandakoentzat abian jarritakoa, 107/2012 Dekretuaren bitartez. Orduan, 80 biktimak aurkeztu zioten norberaren kasua Batzordeari, eta errekonozimendua izan zuten, beraz, partziala behintzat, Espainiako gobernuak jarritako helegiteengatik. Eman diren indemnizazioak ikerketa judizialean izan dira batzuk, zeinetan Estatuko agente batzuek erantzukizuna bazutela erabaki baita.

Dena den, ikerketa judizialek tortura izan dela frogatu izan duten kasuetan ere, indemnizazioa benetan jasotzeko arazo bat baino gehiago izaten dute biktimek:

- Funtzionario errudunak identifikatu ezin izan direnean, torturatua izateak biktimei ez die indemnizaziorik ekarri.
- Indemnizazioen zenbatekoa oso txikia izan da. Amnesty Internationalen datuen arabera, indemnizazioen hiru laurden 3.000 euro baino gutxiagokoak izan dira, eta indemnizazio guztien herena, 600 euro baino gutxiagokoak.
- Bestalde, indemnizazio judizialen zenbatespenetan, kalteak ez dira behar bezala zenbatetsi, nazioarteko estandarrek giza eskubideen urraketetan ezarritakoaren arabera. Gehienetan, trafiko-istripuen kasuetarako edo bestelako batzuetarako estandarrak hartu dira oinarri.
- Erantzukizun zibil subsidiarioa nori dagokion argi dago 1995eko Zigor Kodeaz geroztik, baina hura baino lehen ez barne-legedian, eta, beraz, aurretiatzko zenbait kasuri ez zitzaion aplikatu. Tortura-kasuetan, bai eta tratu txarren kasuetan ere, erantzule zibil subsidiarioa Estatua da.

#### c) Preskripzioak erreparaziorako eskubidea mugatzen du

Delituaren preskripzioa gertatuz gero, biktimek ezin dute justiziaren erreparazioa eskatu. Alabaina, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean, tortura delitu preskribaezina da. Gainera, preskripzioa aplikatzen bada,

---

<sup>1</sup> Torturaren biktimek eskubidea dute Estatuak berehalako erreparazioa eman diezaien. Horren barruan sartzen dira giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erreparazioaren oinarriko printzipiotzat dituenak:

- a. Lehengoratzea eta itzultzea. Biktimari bere eskubideak lehengoratu behar zaizkio, eta, galerak izan baditu, haiek itzuli.
- b. Indemnizazio egoki eta bidezkoa, jasandako kalteen ordain gisa. Ekonomikoki baliozta daitezkeen kalteengatik indemnizazioa emango zaio biktimari, eta kaltetzat hartuko dira torturaren edo tratu txarren ondorio diren kalte-galera material nahiz immaterial guztiak, hala nola kalte fisiko edo mentala, aukera-galerak, diru-sarrerak galtzea (lortu gabeko irabaziak barne), kalte moralak (izen onari eta duintasunari eragiten diotenak), eta laguntza mediko, psikologiko eta juridikorako gastuak.
- c. Errehabilitazioa; hau da, arreta mediko eta psikologikoa. Biktimek, hala nahi badute, laguntza eta errehabilitazio mediko eta psikologikoa jaso ahal izan beharko dute, eta arazo horretarako egokiak diren zerbitzuak eskaini behar zaizkie.
- d. Erreparaziorako neurriak eta duintasunaren aitortza. Erreparaziorako neurriak dira, besteak beste, gertaerak onartzea, biktimen duintasuna aitortzea, Estatuko agenteen okerra eta erantzukizuna aitortzea, gertaerak eta erantzuleak ikertzea, eta justizia aplikatzea.
- e. Berriro ez gertatzeko bermeak. Neurriak ezartzea legez, judizialki edota polizia-ikerketetan, berriro ezin gertatu ahal izan daitezen halako gertaerak edo gertaera horiek ez ikertzea.

---

horrek indemnazioari ere eragiten dio, nahiz eta tortura-delitua frogatzea lortu. Hala, biktimek administrazioarekiko auzien bideari ekitea beste aukerarik ez dute, balizko indemnazio bat lortzen saiatzeko, baina zenbait urteko bide luzea da hori, biktimarentzat gainkarga afektibo eta sozial handikoa gainera, eta aztertu ditugun kasuetatik bakar batean ere ez da gertatu.

**d) Erantzuleak identifikatu ezean ez dago erreparaziorik**

Tratu txarren erantzule izan diren funtzionarioak identifikatzeko oztopoak izateak (hein handi batean, gainera, Estatuako segurtasun-indarrak justiziarekin lankidetzan aritu ez izanak eragina) eragotzi egin du biktimen eskubidea, bai justizia lortzekoa, bai erreparazio osoa izatekoa. Izan ere, gutxienez delituaren erantzuleetako bat identifikatzen ez bada, biktimari ez zaio indemnaziorik ematen. Eta beste kasu batzuetan ere gertatu da hori, auzitegiek ez zituztelako torturaren ez-egitezko erantzuleetat hartu tortura eragin zuten pertsonen beren gainerako arduradun hurrenak.

**e) Erantzukizun zibil subsidiarioa**

Legea betearazteko ardua duten funtzionarioek giza eskubideak urratzen badituzte, urraketa horien azken erantzulea Estatuak da. Aztertu ditugun kasuetatik gehienetan, Estatuak erantzule zibil subsidiario deklaratu duten epaien kontra helegitea jarri zuen Estatuak, kasu batzuetan erruztatuaren alde egiteko, eta beste batzuetan, berriz, funtzionarioak bere jardunean gehiegikeriaz jokatu zuela argudiatuz. Jarduteko modu horrek prebentzioaren aldeko konpromisorik eza eta biktimekiko errukirik eza erakusten du, eta erreparazioa eragozten.

## 2.4. Biktimei errekonozimendua ematea, eta berriro ez gertatzeko bermeak eta prebentzioa

Zigor Kodean tortura-delitua sartzean onartutako lege-aldaketek ez dute balio izan tortura eta tratu txarrak desagerrarazteko, legedia aldatzeaz gain bestelako neurri ezinbestekoak hartu ez direlako.

### **Indultuak:**

Torturatzeagatik behin baino gehiagotan kondenatuak izan diren pertsonak ere indultatu izan ditu Espainiako gobernuek. Indultu horiek ematean, gertaeren munta minimizatu du Estatuak; zenbait ministro eta agintarik ustezko delitu arintzat jo zituzten, edo gertaera ez larritzat, nahiz eta tartean jada baziren kondena judizialak eta biktimei eragindako tormentuaren xehetasun ugari.

Indultuak ematea justifikatzeko zenbait arrazoi eman izan dira:

- Kondenatuen ustezko ez-berrerortzea. Hori, ordea, ez da guztiz egia; izan ere, kasu askotan ez dago inolako ikerketarik, eta beste batzuetan, berriz, tortura-delitua behin baino gehiagotan egin duten pertsonen emateari eman zaie indultua.
- Gertaeretatik kondenara bitartean igarotako denbora. Argudio horrek, alabaina, alde batera uzten ditu garrantzi handiko bi kontu: bata, atzerapen hori bera astungarri bat dela biktimei; eta bestea, ikerketan prestasunik eza erakusten duela, edo segurtasun-indarrek ikerketan lagundu nahi ez izana.

Estatuak tortura-egileei indultua emateak, are biktimei zinezko errekonozimendurik eman ez bazaie, bi ondorio kaltegarri ditu:

- Biktimen egoera psikologikoan inpaktu handia du, gertaera minimizatzen duelako, bidegabekeria dakarrelako, eta, kontuan izanda gertaera zeinen larria den eta tortura-egileen aitorten eza, ezin justifika daitekeelako.
- Horrelako kasuetan indultua emateak edo zigorraldia arintzeak delitua behar bezain sendo ez zigortzea dakar, eta, beraz, tortura eta tratu txarrak prebenitzeko balio ez izatea.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak berak, jada 1996an, kezka adierazi zuen indultu horientatik. Torturaren kontrako Batzordeak adierazi zuen, 1992ko kasu baten irizpenean, torturagatik kondenatutakoei indultua ematea Torturaren kontrako Hitzarmenaren urraketa garbia dela, eta biktimei erreparazioa emateari eta prebentzioari eragiten diola.

Tortura eta tratu txarren delituengatik kondenatutako funtzionarioak indultatuta, mailaz igota edo ohore-dominak emanda, mezua argia da: giza eskubideak urratzea zinez ez da zigortzen Espainiako estatuan. Zigor gabetasun-egoera horrek guztiak bereziki eragiten die ikerlan honetan sartu ez ditugun beste kolektibo batzuei, bai eta gutxiengo etnikoei eta atzerriko herritarrei ere, torturarekiko eta tratu txarrekiko askoz egoera zaurgarriagoan baitaude, Amnesty Internationalen txostenek azaldu dutenez.

## 2.5. Ikerketa eta tortura eta tratu txarrak errazten dituzten egoerak: inkomunikazio-erregimena

Amnesty Internationalek, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak, Nazio Batuen Erakundeko Torturaren kontrako Batzordeak... Horiek guztiek eskatu izan diote beren gomendioetan Espainiako estatuari, bai eta torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEen kontalari bereziak ere, behin baino gehiagotan, desagerraraz dezala inkomunikazio-erregimena. Erakunde horiek, bai eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere, Espainiaren kontrako zigor- edo gaitzespen-epaiak eman izan dituztenetan tortura-salaketak ez ikertzeagatik, kezka agertu izan dute atxiloaldi inkomunikatuagatik, zeren eta egoera horretan, atxilotuta dagoenak:

- Ezin du konfiantzazko abokatu edo mediku baten laguntza jaso, ez eta senideei bere egoeraren berri eman ere, eta horrek erraztu egiten du segurtasun-indarrek tortura eragin eta tratu txarrak eman ahal izatea.
- Ofiziozko abokatu bat baizik ezin du lortu, eta hura ere murrizketa berezien pean dago; izan ere, ofiziozko abokatuak ezin du atxilotuarekin egon hari aitortpena hartu aurretik, ez eta ondoren ere (Prozedura Kriminalaren Legearen 527. artikulua), eta praktikan, ofiziozko abokatuak isilik egotera behartzen dute atxilotuak deklarazioa egin bitartean.

Torturaren Prebentziorako Europako Batzordea bereziki arduratuta agertu da muga horiengatik, eta Espainiako estatuari gomendatu dio laburtu dezala atxiloaldi inkomunikatuaren iraupena eta berma diezaiola atxilotuari abokatu batekin pribatuan elkarriketa izateko eskubidea. NBEen Giza Eskubideen Batzordeak 1996an adierazi zuen murrizketa horiek ez datozela bat Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 9.-14. artikuluekin. Torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEen kontalariak 1995ean eskatu zuen jo zedila legearen kontratatzat inkomunikazio-erregimena oro har eta debeka zedila atxilotuei begiak zapiz eta burua kaputzaz estaltzeko praktika orokortua. Kontu horiek guztiek lehengo berean diraute azken 20 urteotan.

Bai torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEen kontalari bereziak, bai Amnesty Internationalek, askotan gomendatu dute komeni dela galdeketa-saioak grabatzea, atxilotuen segurtasuna babesteko, batetik, eta legea betearazteko ardura duten funtzionarioen kontra salaketa faltsuak jartzeko aukerarik izan ez dadin, bestetik.

## 2.6. Torturaren ikerketa judiziala, oso mugatua

Ikerketa judizialean eraginkortasuna benetan urria izatea, txosten mediko forentseei buruzko desadostasunak egotea, atxilotuak inkomunikazio-erregimenean eduki ahal izatea eta egoera horretan bermerik ez edukitzea, segurtasun-indarrek tortura-egileak identifikatzen zinez lagundu dezaten lortu ezin izatea, sumopeak egon edota judizialki kondenatuak izan diren funtzionario batzuk indultatu edo mailaz igo izana, hori guztia zigorgabetasuneko testuinguru bikaina izan da tortura eta tratu txarren kasu asko eta askotan. Zehapen penal egiazkorik ez ezartzeak zigorren efektu zentzagarria galtzea dakar, disuasio-neurria galtzea, alegia, eta tortura desagerrarazteko oztopo bat da.

## 2.7. Prozesuak luzeegiak izatea: zigorra txikitu eta biktimaren sufrimendua handitu egiten da

Ikerketa-prozesuaren mantsotasuna dela eta, zenbait kasutan delitua preskribatutzat jo da. Beste kasu batzuetan, berriz, bidegabeko atzerapenagatik aringarria aplikatu izan da, eta, hala, tortura-egileei zigorraldia txikitu izan zaie, edo betetzeko baldintzak mugatu, eta, beraz, kondena azkenean ez da izan delituaren larriagatik behar lukeena bezainbestekoa.

Atxilotuek tortura edo tratu txarrak salatu izan dituztenetan, ikerketak izugarri luze jo izan du: atxilotuari terrorismo-delitua egozten zaionean, prozesuak batez beste 12 urte eta 8 hilabete irauten du; eta atxilotuari inkomunikazioa edo legedi antiterrorista aplikatzen ez zaion testuinguruetan, berriz, sei urte eta hiru hilabete. Atzerapen horrek, gainera, beste ondorio bat ere badakar biktimentzat: erreparazio moral eta materialen bat lortzeko eskubidea bete ezina, eta, beraz, bigarren mailako biktima bihurtzea.

## 2.8. Diziplinazko zehapenak

Ikertu ditugun kasu guztietatik bakar batean ere ez du Administrazioak barne-ikerketarik egin, ez diziplinazko prozedurarik hasi, ustezko tortura-delitu batengatik prozesu penal bat abian egon denean, ekintza pena-

---

laren emaitzaren zain. Auzitegi Gorenaren epaiak zituzten kasuetan ere, Auzitegiak ebatzi zuen identifikatu gabeko agente ugari hartu zutela parte torturan, nahiz eta segurtasun-indarrek egitura hierarkikoa duten eta delitua larria den. Horrek zera dakar, zigorgabetasunaz gain: ikerketa judizialeko atzerapenen ondorioz, behin prozesu penala ebatzi ondoren, diziplinazko balizko erantzukizun baterako ekintzek preskribatzea.

## 2.9. Tortura eta tratu txarren biktimei erreparaziorik eza

Tortura eta tratu txarren biktimei bidezko indemnezazio bat edo bestelako erreparazio moduren bat bermatuko dien legedirik ez dago Espainiako estatuan. Biktima horiek jaso dezaketen erreparazio bakarra epaile batek epai bidez ematen duena da, eta, beraz, aukerarik gabe geratzen dira zinezko ikerketa judizial bat egiteko modurik izan ez duten kasu guztiak: historiako une batzuetan kasu gehienak, beraz, aurretiazko eginbidetan edo ikerketa-prozesuko tarteko fasetan geratu baitira, aurrera egin ezinik, lehen aipatutako oztopo ugariengatik. Kasu gutxi batzuek izan ezik, ikerlan honetako gainerako kasu guztiek ez dute erreko-nozimendurik ez erreparaziorik izan.

Lehen esan dugun bezala, erreparazio hori indemnezazioa baino ez da, eta ez ditu kontuan hartzen ez giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erreparaziorako ezarritako printzipioak eta ez NBEek giza eskubideen urraketa larrien erreparazioari buruz egindako gomendioak. Indemnezazioa, gainera, gertaerak jazo eta urte gehiegi igaro ondoren ematen da, batetik, eta bestetik, ematen den zenbatekoak kasu gehienetan ez dira islatzen delituaren larria, ez eta biktimak pairatutako kaltea ere, batik bat kalte morala. Beste kasu batzuetan indemnezazio hori ere ez dute jasotzen biktimek, tortura eragin zieten egileak berak identifikatu ezinagatik eta erakundeen lankidetzaz ezagatik.

1995ean, Espainian 35/1995 Legea promulgatu zen, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorosteko. Baina tortura eta tratu txarren biktimak gehienetan ez dira sartzen lege horren aplikazio-eremuan, eta ezin dituzte laguntzak jaso, legeak ezartzen baitu delituaren ondorioek heriotza edo gorputz-lesio larriak izan behar dutela, osasun fisiko edo mentalari kalte larriak eragitearen ondorio, salbu eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima baldin badira, legeak berariaz ezarria baitu kalte moralengatik ordainik ezin jaso ahal izango dutela baldin eta lesio larriak psikologikoak badira. Torturaren biktimek tratamendu horretarako laguntzarik ere ezin dute jaso, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzat soilik direnez gero.

Beste biktima-mota batzuei indemnezazio, pentsio eta laguntza psikosozialak emateko erabiltzen diren irizpideekin alderatuta, aldea sekulakoa da. Eskala finko baten arabera ematen dira indemnezazioak, erabaki judiziala alde batera utzita, bestelako laguntza-programez gain. Izaera orokorreko erreparazio-programa horietaz gain, erreparazio judiziala ere izugarri mugatua izan da kasu hauetan.

## 2.10. Arartekoaren esku-hartzea Ertzaintzaren jardunak direla eta

Arartekoak zenbait kasu eta gomendio baloratu ditu Ertzaintzaren zaintzapean inkomunikazio-aldian izandako bermei buruz, nahiz eta azken urteotan kexa gutxi izan diren, eta adierazi du beharrezkoa dela polizia-erakundeek kontrolerako tresnak jartzea, agenteek legez kontrako jokabiderik izan ez dezaten (Arartekoaren gomendioa, Eusko Jaurlaritzarako txostenean aipatua 2003an eta hurrengoetan).

Edonola ere, oso ugariak ez diren arren, jaso ditu kexak Arartekoak, era askotakoak, Ertzaintzarekin lotuak. Kasu horietako askok badute ezaugarri komun bat: herritarrek Ertzaintzara jo zuenean kexa azaltzera, Ertzaintzak ez zuen barne-prozedurarik hasi gertatutakoa argitzeko eta ikusteko ea bazegoen arrazoirik diziplinazko espediente bati hasiera emateko.

Beste erakunde batzuek egin izan dituzten ikuskapenetan egokitzen jo dute Ertzaintzaren prebentzio-eredua eta ez dute haren kontrako salaketa nabarmenik egin. Dena den, eta ezein zalantza uxatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Ertzaintzak (euskal erakundeetatik sortua) legez kontrako jokabide guztiak eragotzi behar dituzte, agenteek ez dezaten aukerarik izan gehiegikerietarako, abusuetarako, tratu txar, anker edo umilia-garririk emateko, edo torturatzeko. Iraganari dagokionez, komenigarria litzateke gogoeta autokritikoa egin eta azaltzea, ikerlan honen emaitzeekin bat etortzeko moduan. Orainari eta geroari dagokionez, berriz, prebentzio-neurriak areagotzen eta hobetzen jarraitu behar da, atxilotuak beren funtsezko eskubideak berme osoz begiratzeko moduan tratatuak direla ziurtasun osoa izan dezaten herritarrek.

Ageriko zerbait da Poliziaren jarduna etengabe gainbegiratu beharra dagoela, ikuspegi deontologikotik, horrek aukera ematen baitu legez kontrako balizko jokabideak prebenitzeko eta, azken batean, Poliziak herritarrei ematen dien zerbitzua hobetzeko.

- Ertzaintzaren barruko unitateek barne-ikerketak bat hasi behar dute, ofizioz, legez kontrako jokabideren bat izan dela uste izateko arrazoi zentzuzkoak dauden orotan. Alde horretatik, herritarren kezak edo salaketak beti hartu behar dira lehen zantzutzat (berdin dio hierarkiako agintariek zein bidetatik jakin duten keza edo salaketa horien berri), eta beti ikertu behar dira; ezin dira besterik gabe baztertu.
- Ertzaintzak, bere zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko eta kontrolerako tresna gisa, hainbat datu erabili beharko lituzke: atxilotuta-kopurua, zer maiztasunekin ageri diren agenteak salatzaile gisa ates-tatuetan horrelako arau-hauste penalengatik, zenbat keza jaso diren polizia-jardunengatik, etab.

## 2.11. Beste gomendio batzuk

### Amnesty Internationalen gomendioak

Oraintsu argitaratua dela eta, txosten batean Amnesty Internationalek 2017an egindako gomendioak ere ez dira ahaztekoak. Hauxe da txostena: "Iraganari aurre egin, etorkizuna eraikitzeko: Egia, Justizia eta Erreparazioa Euskal Herriaren testuinguruan".

*Torturaren biktimentzat:*

*Estatu agintariei eta Euskal Autonomia Erkidegokoei, elkarlanean jarduteko konpromisoa har dezate, zertarako:*

- *Era exhaustiboan eta bateratuan ezartzeko noraino iritsi diren borroka antiterroristaren barnean urratu diren giza eskubide guztiak, kontuan hartuz bananduta dauden datuak eta emakumeengan urraketek eduki ahal izan duten eragin berezia eta genero ikuspegia. Emaitzek modua eman behar dute agintari politikoen, legegileen eta judizialen erantzuna ebaluatzeko, bai estatuan, bai Euskal Herrian, bai biktima zuzen guztiei eta bai familiakoei. Neurri legegileak, judizialak eta beste mota batekoak hartu behar dira, biktimen egia inguruan eta justiziarako eta erreparazioarako sarbidean izan dituzten gabeziak nola arindu proposatzeko, giza eskubideen nazioarteko esparruaren arabera, inolako bereizkuntzarik egin gabe.*

*Gobernu zentralari eta Gorte Nagusiei, eta Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari:*

- *Agintariek aitorten publikoak egin behar dute torturak eta tratu txarrek ETaren kontrako borroka antiterroristaren testuinguruan zer-nolako kaltea ekarri duten, eta mezu argia eman behar dute atxilotuen tratu txarrak ez direla onartuko; diziplina espedienteak abiarazi behar dituzte baldin gertatu direla pentsatzeko arrazoizko susmoak badaude, eta neurriak hartu, salatzaileak edonola ez beldurtuak izateko eta mehatxurik ez jasateko.*
- *Kanpo ikuskaritza bat egin behar da, barne ikerketen mekanismoena, bermatzeko giza eskubideen urraketak larriak giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera ikertzen direla.*
- *Sistema erreformatu behar da bermatzeko legea betearazteaz arduratzen diren funtzionario guztiek egindako tortura eta tratu txarren salaketa guztiak ikertuak direla giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera, pertsonal aditu, inpartzial eta independente bidez. Horretarako, Amnesty Internationalek gomendatzen du ikerketa mekanismo independente bat sortzeko, baliabide guztiak izango dituen eta gaitasuna izango duena legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioek larriki urratutako giza eskubideen salaketa guztiak ikertzeko, pertsonal aditu eta inpartzial bidez, egileetatik eta inplikaturako organismoetatik independentea izango dena.*
- *Bideo eta audio sistemak sartzea eta, hala, grabaketa sistematikoa eta osoa bermatzea polizia etxeetan atxilotuak eduki ditzaketen ingurune guztietan. Grabaketak leku seguruan eduki behar dira, arrazoizko denbora batean, bermatzeko erabilgarri egongo direla ikerketa judizialean edo bestelakoetan behar baldin badira.*
- *Protokolo mediko-forentseak berrikustea: tortura eta tratu txarrak izan direla erabakitzeko eta dokumentatzeko balio dutela eta eraginkorrak direla ikuskatzea; batez ere ikerketa judizialean frogatzea gisa zer erabilera ematen zaien aztertzea. Tortura eta bestelako tratu txarrak ikertzeko eta dokumentatzeko Istanbulgo Protokoloa erabiltzen dela bermatzea.*
- *Atxilotuez arduratzen den edo atxilotuekin harremanetan den pertsonal ororen hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, askatasuna ukatu zaien pertsonak tratatzeko nazioartean ezarrita dauden estandarretan oinarrituta.*

---

Agintari judizialei eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari:

- Agudoki, exhaustiboki eta inpartzialki jardutea, legea betearazteaz arduratzen den funtzionario batek tratu txarrak egin dituela pentsatzeko arrazoizko motiboak dauden guztietan, baita salaketarik ez badago ere.
- Bermatzea Fiskaltzak berehala abiarazten dituela prozedura kriminalak, betiere arrazoizko motiboak badaude pentsatzeko legea betearazteaz arduratzen den funtzionarioak tortura eta bestelako tratu txarren bat gauzatu duela, baita salaketa espresik ez badago ere.
- Urteko memorian torturen eta beste tratu txar batzuen salaketak erregistratzea eta jasotzea.

Gobernu zentralari eta Parlamentuari:

- Zigor Kodea erreformatzea, torturaren tipifikazioa Torturaren aurkako Hitzarmenean datorren definizioaren arabera eginda dagoela bermatzeko.
- Zigor Kodeko 174. artikuluko torturaren delituaren definizioa Torturaren aurkako Hitzarmenera erabat egokitzea, eta kontuan hartzea tortura ekintza gauza dezakeela “funtzio publikoak betetzen ari den pertsona batek edo horrelako pertsona baten bultzadarekin edo halako baten baimenarekin edo onespenerarekin jarduten dutenek”. Era berean torturaren helburuen barnean sartu behar dira “pertsona hori edota beste batzuk larderiatzea edo hertsatzea”.
- Tortura delitua delitu autonomo gisa tipifikatzea, nazioarteko zuzenbideko krimenen kategoriararen barnean.

Larritasunaren araberrako zigorrak prestatzea; obediencia zor izatearen edo eginbidea betetzearen salbuesgarria inola ere aplikagarria izango ez dela espresuki ezartzea; buruen eta bestelako goragokoen zigor erantzukizunak sartzeari; eta espresuki txertatzea konspirazioaren eta hura gauzatzeko proposamenaren zigorra.

Horretaz gain, Amnesty Internationalek 2017an beste txosten bat ere eman du argitara, espezifikoa: “Euskal Herria: Amnesty Internationalen txostena, torturaren biktima eta giza eskubideen beste urraketa batzuen izan diren pertsonen egitarako, justiziarako eta erreparazioarako duten eskubideaz”. Txosten horretan, AI erakundeak ontzat ematen ditu abian jarritako ekimenak eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2016 Legea, EAEn 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Txosten horretan, ondorio gisa hauxe adierazten du:

*Amnesty Internationalen ustez, Gobernu zentrala torturaren biktimizez ahaztu da eta hura erreparatzeko edozein neurri hartzearen aurka azaldu da. Bestalde, erantzun judiziala askotan eraginik gabea izan da, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2010etik zortzi aldiz ere azaldu duen moduan. Amnesty Internationalek ikusi duenez, torturaren biktimizek hamaika zailtasun izaten dute, hala nola erantzule zuzenak ez identifikatzea eta Estatuak kasu asko eta askotan erantzukizun zibil subsidiarioa bere gain hartzeari uko egitea. Amnesty Internationalek egiaztatu duenez, halaber, kalte-ordain bat ematen denean, gehienetan oso txikia izaten da eta ez du delituaren larritasuna islatzen, edo gertatu eta urte asko geroago iristen da. Kalte-ordain egokia lortzea garrantzitsua da ikuspuntu materialetik, baina baita ikuspegi psikologikotik ere, eragindako kaltearen errekonozimendu egiaztagarria den aldetik.*

*Amnesty Internationalentzat, Espainiako agintariak espresuki eta ofizialki aitortu behar dute torturatzea Espainian ez dela fenomeno bakartua izan, baizik eta borroka antiterroristaren testuinguruan orokortua izan den jardun bat. Hori espresuki aitortuta bakarrik ezarriko dira oinarriak torturaren eta tratu txarren alegazio guztiak agudo eta modu eraginkor eta exhaustiboan ikertuko direla bermatuko bada hartu beharreko neurriak ezartzeko, eta biktimizek eta haien senideek helegite eraginkor bat jasotzeko aukera eta erreparazio egokirako eskubidea izateko, eta horrek ekarriko du giza eskubideen urraketa horiek berriro ez gertatzeko oinarri sendoak finkatzea.*

*Amnesty Internationalek ontzat jo ditu torturaren eta tratu txarren biktima izan direnak aitortu eta erreparatzeari begira Euskal Herrian abiarazitako azken ekimenak eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2016 Legea, uztailearen 28koa, EAEn 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Lege horren helburu nagusia da egian eta biktimen erreparazioan aurrerapausoak ematea, eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hartzen du horretarako erreferentziatzat. Helburu hori lortzeko, Balorazio Batzorde bat sortzen du, eta bi urteko epea ematen dio erreparazioarako neurriak proposatu eta eskaerak baloratzeko. Erreparazioaren barruan kalte-ordain ekonomikoaz haratagoko neurriak ere hartzen ditu kontuan Legeak, bat etorriaz “Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko*



*urraketei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketei begira, biktimek errekurtsoak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipioak” deritzonarekin. Printzipio horiek gogorarazten dute erreparazioa ez dela soilik konpentsazio ekonomiko bat, eta beste betebeharrak batzuk ere badakartzala, hala nola lehengoratzeko eta errehabilitazioa (hau da, ahal den neurrian biktima lehengo egoerara itzultzea, eta, horretarako, fisikoki, psikikoki eta sozialki bere onera etortzeko neurriak hartzea), eta egia publikoki hedatzea eta biktimen duintasuna eta izen ona berrezarriko duten adierazpen ofizialak egitea.*

*Azaldu dugun bezala, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak zilegitzat dauka mekanismo estrajudizialak sortzea, giza eskubideen urraketa larrien biktima izan direnei erreparazioa eman eta egia ezartzeko, mekanismo horiek auzitegien jardunarekin bat badatoz. Espainiako estatuak ezin du erakundeen barne-arkitekтура aitzakia hartu bere eskumenaren pean dauden pertsonen giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak aitortzen dizkien eskubideak ukatzeko.*

### **Kriminologiaren Euskal Institutuaren gomendioak**

Denboraren joanean egin izan diren gomendioetatik, komeni da gogora ekartzea Kriminologiaren Euskal Institutuak 2011ko txosten batean egindako proposamen batzuk. Txosten horretan, “Terrorismoaren biktimen memoria sendotzeko eta bakea sustatzeko politika publikoen balorazioa” izenekoak, honela zioen Institutuak, biktimek ardatza izan behar dutelako uste sendoan, torturari eta tratu txarrei dagokienez:

*Ekintza terroristak jazartzeko bezala, zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko ere ezinbestekoa da prozesuan parte hartzen duten guztiak babesteko neurri zehatz eta espezifikokoak hartzea, bai eta agente publikoen erasorik berriro ez gertatzeko zinezko ekintzak egitea ere; horretan arrakasta izateko, prebentzio- eta jazarpen-mekanismo espezifikokoak jarri behar dira abian.*

*Alde horretatik, tortura eta tratu anker eta umiliagarriak prebenitzeko, azpimarratzekoak dira, gomendio modura, hauek:*

- Behar bezala arautzea atxiloketa-kasuak, eta kasu guztietarako, lege-laguntza izateko eskubidearen berme osoa ematea, atxiloketaren kontrol judizial eraginkorra ziurtatzea, eta atxiloaldi inkomunikatua eta polizia-atxiloketaren luzapena legez mugatzea eta zorrotz monitorizatzea.*
- Behar bezala arautzea atxiloketa-espazioak eta mediku forentseen esku-hartzea, atxilotuaren egoeraren segimendua egin dezaten modu jarraituan, eta bisita-sistemak Europako Hitzarmenaren arabera baimentzea.*
- Instantzia independente baten esku uztea agintari eta funtzionario publikoek modu egokian funtzionatzen dutela begiratzeko eskumena, eta gehiegikeriak, tortura eta legez kontrako atxiloketak gertatzea erraztu dezakeen espaziorik egon dadin eragozte.*
- Torturaren eta tratu anker eta umiliagarrien kontrako behatoki bat sortzea.*

### **107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordearen gomendioak (Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko)**

Kontuan hartzekoak dira, halaber, biktima horiei errekonozimendua emateari begira abiarazitako beste ekintza batzuk, hala nola Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak abiarazi dituenak “EAE 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu bidegabeak buruzko Balorazio Batzordea” deritzonaren bidez, zeinaren emaitzak 2017an eman baititu argitara, “Ahanzturatik ateratzen” izeneko txostenean.

Aurretiazko esperientzia horrekin, Balorazio Batzordearen gomendioak 1978az geroko urteetara ere heda daitezke, eta komeni da hala egitea gainera:

- 1. Giza-eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimen erreparaziorako eta errekonozimendurako araudia ahal den bizkorren osatu beharra dago. Motibazio politikoko sustraitutako bortizkeria-testuinguru batean –eta gaur egun arte– gertatutako urraketei buruz ari gara. Zentzu honetan, Balorazio Batzordeak kezka handiz konprobatu du zenbait kasutan giza eskubideak oso neurri larrian urratu arren ezin izan dela ziurtatu kaltegabeak Segurtasun Indarretako kideak zirenik, nahiz eta susmoa ildo horretatik joan. Halako kasuetan ez dago 107/2012 Dekretua aplikatzerik. Suposizio mota horren baldintzak balioztatzeak, aldi berean, terrorismotik eratorritako biktimatzat ezin onartu izana ekarri du. Azken emaitza, beraz, lege araudi eza baizik ez da eta hala izanda ez dago biktima hauen beharrezko errekonozimendua eta erreparazio publikoa babesteko duen estalkirik. Batzordeak esperientzia baliagarria eskuratu du*

---

*datuak aztertu dituenean eta, esperientzia horretan oinarrituta, eskaera bat luzatzen die erakunde eskudunei: araudia jorratzeko unean baldintza horiek guztiak kontuan izan daitezela.*

*2. Batzordekideek biktima gehienen sentimenduari heldu nahi diote. Sentimendua asetzearen bidetik, bada, errekonozimendurako ekitaldi publiko bat egitea gomendatzen dute. Horrez gain, biktima horiek hemendik aurrera ospatu beharreko memoria-ekitaldi guztietara gonbidatzea gomendatzen dute.*

### **Torturaren prebentziorako euskal legea**

Aurreko guztiari beste proposamen bat gehitu dakioke, torturaren prebentziorako euskal lege bat ematea, José Luis de la Cuesta<sup>2</sup> irakasleak zenbait aldiz azaldu izan duen moduan. Tortura eta tratu txarrak prebentzea eta biktimei erreparazioa ematea izango luke helburu legeak, eta hiru ardatz edo titulu nagusi eduki beharko lituzke:

- Lehen, **Torturaren eta tratu anker edo umiliagarrien prebentzioari buruzkoa**; eginkizun honek ez du eskusibotasunik onartzen, eta, nazioarteko tresnen argitan, gizarte-heziketa eta -kontzientziari lan etengabetik abiatzea eskatzen du, betiere giza eskubideen pedagogia egoki baten eta bake-kultura benetako baten esparruan.

Ekintza orokor horrekin batera bereziki bultzatu behar dira, noski, mota honetako intzidentek (dolzukoak, antolaketa-akatsengatikoak edo arduragabekiagatikoak) gertatzeko arrisku handienekoak diren esparruetako profesionalen esku-hartze espezifikoak. Horien artean hauek dira nabarmenak: segurtasuneko profesionalak eta beren lan-jarduera legearen aplikazioari lotuago duten profesionalak; atxilotuen edo presoan zaintzaz eta galdeketa (zentzu zabalean) arduratzen den pertsonal medikoa eta bestelako pertsonak, edo, oro har, aplikagarri zaizkien espetxeratze-baldintzak direla-eta askatasuna murriztua edo mugatua duten pertsonen arretaz edo tratamenduz arduratzen diren pertsonak. Biktimei laguntzeko eta biktimekin tratua izateko ardura duten pertsonak prestatzeko sistema espezifikoak ezartzea ere jaso beharko litzateke prestakuntza-mailan, bereziki Euskadiko polizia-taldeen kideentzat, Justizia Administrazioentzat, gizarte-zerbitzuentzat eta beste kolektibo batzuetakoentzat.

Jaso beharko litzateke, era berean, barne-mekanismoen eta, ezinbestean, kanpo-istantzia independenteen bidezko ikerketa bizkor eta inpartzialerako betebeharrak, legearen aplikazioaren esparruan sartzen den ekintza bat gertatu delako zantzu zentzuzkoak badaude; eta orobat, komunikazio- eta kexa-prozedura arinak ezartzea zuzenean erasandakoentzat.

Nazioarteko esparruan ospe handiena duen prebentzio-mekanismoetako bat Europako Hitzarmenak jasotzen dituen bisita-sistemena da; Nazio Batuen tresnen artean jasota dago jada. Dagokien instantziak bisita egiteko aukera izate horrek ere legearen edukien artean egon beharko luke, titulu honetan.

Bestalde, Torturaren eta beste tratu edo zigor anker edo umiliagarri batzuen kontrako Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboak “prebentzio-mekanismo nazional” izenekoak ezarri zituen. Azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoak Herriaren Defendatzaileari atxiki zion Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren eskumenak baliatzea Espainian. Hala ere, Protokoloaren 17. artikulua berriaz baimentzen du “erakunde deszentralizatuek ezarritako mekanismoak” izatea; horiek “prebentziorako mekanismo nazional izendatu ahal izango dira Protokolo honen ondorioetarako, honetako xedapenei egokitzen bazaizkie.” Horregatik, aukera hau ere aztertzea komeniko litzateke.

- Bigarren titulua **Biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematea** izango litzateke.

Ezarritako aplikazio-esparru pertsonal eta espazialean, torturaren eta tratu galarazien biktimen eskubideen deklarazio bat hartu beharko luke abiapuntu titulua: duintasunerako eta biktima gisa errekonozimendua izateko eskubideak, eta egia, justizia eta erreparazio integralerako eskubidea.

Egiarako eskubideak biktimen errekonozimendua publiko jaso beharko luke, bai eta, politika publikoaren esparruan, horien errekonozimendua instituzionalera, ohorearen errehabilitaziora eta erreparazio moralera zuzendutako ekintzen sustapena ere.

Eta delituzko jarduerari dagokienez egia finkatzea normalean justizia-administrazioaren eginkizuna bada ere –biktimek badute, osterantzean, tutoretza judizial eraginkorrerako eta administrazioarekiko harremanetan laguntza jasotzeko eskubidea–, esparru honetan hain dago nagusituta frogak

---

<sup>2</sup> De la Cuesta, J.L. Torturaren prebentziorako euskal legea? in *Justizia trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*, Bakearen Etxea, Donostia, 2013.

ezkutatzearen eta froga faltaren ondorioz esku-hartze penalak eragindako frustrazioa, arrazoi asko eta askok bihurtzen baitute komenigarri sistema berezi bat ezartzea. Bidezkoa dirudi, hain zuzen, ospe sozial eta moral handiko pertsona independentez osatutako batzorde edo instantzia espezifikoko bati atxikitzea eskumena, soilik gertakariak finkatzeari dagokionez, nazioarteko tresna homologatuetan oinarriturik horretarako (Istanbulgo Protokoloan, esaterako), eta horrenbestez Ministerio Fiskalak edo organo judizialek maila penalean zertzen duketen esku-hartzeak eragindako interferentzia orotatik at, helburu bakartzat izanik, jakina, erantzukizunak zehaztea.

Erreparazio integralak eskatzen du, besteak beste, osasun-laguntza, laguntza psikologikoa, biktimen errehabilitaziorakoa eta bestelako batzuk garatzeko sistema eraginkorrak ezartzea, legeak heldu egin beharko bailieke horiei ere, torturaren biktimei eragindako kalteetarako (kalte fisiko, psikiko eta sozialetarako) arreta-zerbitzu espezializatuak ezarriz, bai izaera publikoko zerbitzuak, bai biktimen interes eta beharrak epe labur, ertain eta luzean estaltzera zuzendutako elkarte edo zentro espezializatuekin hitzartuak.

- Tituluetan hirugarrenak **baliabide instituzionalak eta prozedurak** jasoko lituzke nagusiki, eta sortu beharreko entitate, erakunde edo programa espezifikoaren egitura eta eskumenak arautuko lituzke, beharrezko baliabide ekonomikoak hornitzeko konpromisoarekin batera.

Horregatik guztiagatik, guztiz komenigarria litzateke behatoki iraunkor bat izatea, orain arte egindako lana amaituztat jo ezin denez hari jarraipena emateko, batetik, eta bestetik, torturaren eta tratu txarren prebentzioari, erreparazioari eta errekonozimenduari buruzko gogoeta egiteko, kontuan hartuta 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, Polizia Abusuen Euskal Legea deritzona<sup>3</sup>.

### **12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa**

Eusko Legebiltzarrak onetsitako lege horri buruz, Fabián Salvioli<sup>4</sup> doktoreak zenbait ondorio atera eta txosten batean jaso zituen: “Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2016 Legea, EAEn 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekiko bateragarritasuna”. Hona hemen ondorioak:

*12/2016 Legea nazioarteko zuzenbideak, nazioarteko babes-erakundeek eta giza eskubideen urraketan biktimen erreparazioko gaietan ondutako estandarrek zehaztutako noranzkoan doa bere osotasunean.*

*Legearen xedea eta helburua bera, azterketa teleologikoaren ikuspegitik, bat dator nazioarteko araudi eta erabaki horiekin; Legea abian jarriz erreparatu nahi diren giza eskubideen urraketari buruz badago nazioarteko jurisprudentzia, eta harekin bat egiten du aurreikusitako legeak.*

*12/2016 Legeak ezarritako jurisdikzio, denbora-esparru, pertsona onuradun, ekintzarako printzipio eta prozedurek ere nazioarteko erakundeek erreparazio-gaietan erabakitako araudi eta ebazpen guztiak betetzen dituzte.*

*12/2016 Legeak aurreikusitako erreparazio-neurriak, bai botere publikoen ordain-neurriak indarrean sartzeko orduan eta bai Legeak xedetzat duen prozedura espezifikoan (kalte-ordainak eta errehabilitazioa),*

---

<sup>3</sup> Eusko Legebiltzarrak, 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran, 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruz. Proposamen hartan, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion neurriak eta jarduerak martxan jar zitzala biktima haien errekonozimendua ahalbidetzeko eta haien sufrimendua konpontzeko. Hura betetzeko, 107/2012 Dekretua onetsi zen, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, diktadura frankistan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa. Gerora 12/2016 Legea onartu zen, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, zeinak kontuan hartzen baititu 107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordearen gomendioak eta esperientzia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 267/2015 Epaia ezarritako jarraibideak.

<sup>4</sup> Zuzenbide eta Gizarte Zientzietan doktore; Nazioarteko Zuzenbide Publikoan katedradun; Zuzenbide eta Gizarte Zientzietako Fakultateko Giza Eskubideen Institutu eta Maisutzako zuzendaria, La Platako Unibertsitate Nazionalean (Argentina); eta Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko kide ohi (2009-2016) eta presidente (2015-2016).

---

*lagungarriak dira egiarako eskubidea bete dadin eta bat egiten dute "erreparazio integrala" deritzonarekin, eta hori da, hain zuzen, giza eskubideen urraketei heltzeko printzipio gailena, mundu osoko zein eskualdeko jurisprudentzia iraunkorraren arabera.*

*Zalantzarik gabe, Legeak bete egiten ditu bai nazioarteko zuzenbidetik sortutako ebazpen eta oharpen orokorrak, bai Espainiari buruz nazioartean hartutako erabaki zehatzetatik eratorritako betebeharrak. Horregatik, salbuespenik gabe erabat indarrean sartuta, ez dago zalantzarik 12/2016 Legeak, bere xede eta helburuak behar bezala aplikatzean, giza eskubideen gaineko Estatuaren betebeharrak ikuskatzen dituzten nazioarteko erakundeen balorazio oso ona jasoko duela.*

Horregatik, Gobernu zentralak Lege horren kontra Konstituzio Auzitegiaren aurrean jarria duen helegitea kalterako da. Biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko bidean beste urrats bat da Legea, eta, beraz, hura garatzea eta aplikatzea oztapatzen duen ekintza oro bertan behera uztea litzateke onena.

Giza eskubideen aldeko Argituz elkarteak adierazi duen bezala "Orain da garaia" txostenean (2013), oroimen bateratzailea eraiki beharra dago. Bateratzailea izango bada, alabaina, zenbait ezaugarri izan behar ditu:

1. Giza eskubideen urraketa-modu guztiak bildu behar ditu, bai eta urraketa horiei buruzko oinarritzko kritika morala ere.
2. Biktima guztien min eta duintasunarekiko errespetua erakutsi behar du, baita "beste aldeko" biktimen minarekiko ere, edota politikoki hurbil sentitu ez diren horiekiko ere.
3. Oroimen bateratzaile orok sortzen dituen anibalentziak edo zalantzak edo ikuspegi desberdin eta efektu negatiboak aurre egin behar die, horiek guztiak "besteen kontra" erabili gabe.
4. Eduki ditzakeen mugak onartu behar ditu, baina bizikidetzat berrituz onera etor dadin ekarpen handia dela izanik beti ardatza.
5. Giza eskubideekiko errespetua izango du oinarria, denen oinarri komuna, desberdintasun politikoak haratago.

Jada aipatu ditugun beste ekimen batzuek gain, Eusko Jaurlaritzak torturari eta tratu anker eta umiliagarri buruzko behatoki bat sortzeko aukera kontuan hartu behar litzateke hemen. Bestalde, babesa eman behar litzateke, halaber, giza eskubideak errespetatzearen eta sustatzearen alde gizarte zibilak antolatzen dituen ekimenei eta, konpromiso horrekin bat, torturaren aurkako borrokan eta torturaren biktimei laguntzearen ikertzen eta lanean diharduten elkarte eta abarrei; eta aztertzekoa ere bada, beharbada, torturaren biktimen Nazio Batuen Funtsari ekarpena egiteko konpromisoa hartzea.

Hori guztia posible litzateke torturaren eta tratu anker eta umiliagarrien prebentziorako euskal legea garatu ondoren, zeina, nazioarteko tresnen argitan, gizarte-heziketa eta -kontzientziatzearen lan etengabetik abiatu beharko litzatekeen, betiere giza eskubideen pedagogia egoki baten eta bake-kultura benetako baten esparruan.

Azkenik, esan nahi genuke atxilotu askok pairatutako torturaren eta tratu txarren inpaktua jaso dela ikerlan honetan, bai eta tortura eta tratu txar horiei buruzko xehetasunak ere. Kontakizun ugari dira, ongi dokumentatuak, eta erakundeek eta gizarteak entzun egin beharko litzuzke. Zeren eta, giza eskubideen kultura eraikiko bada, ezinbestekoa baita biktimek pairatutako sufrimenduarekiko eta bidegabekeriarekiko sentsibilitatea, baita biktima horiekiko ere, Euskal Herrian indarkeriaren eta terrorismoaren ondorioak pairatu dituzten beste hainbatekin batera. Torturaren eta tratu txarren inpaktua agerira ekartzea lehen urrats bat da: gure iragan hurbilaren parte izan den ispiluan zati hori ere ikustea, ez dezan baldintzatu gure gizarte honen geroa.